



BETERRIKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1994ko apirila. 1. zenbakia. Doan banatzen da.



Zakukada bat  
milioi



EUSKALDUNON

# JAI A 94



MAIATZAK 15 AMASA-BILLABONA

EUSKALDUNON Egunkaria

- 2 AGENDA
- 4 INKESTA: Eta zu, joango al zinateke telebistara maitasun eske?
- 6 BERRIAK LABUR
- 8 ZIKULU SALTSA: Andoinen aurten izango da aurrekonturik.  
Batetik PSE-EE, EuE eta PNV, bestetik, HB eta EA.
- 11 HERRIZ HERRI
- 17 ERREPORTAIA: Asteasu eta Larraulek milioiak jasoko dituzte  
Europatik. Kexu dira Diputazioarekin.
- 20 ELKARRIZKETA: Zizurkildarrak El Salvadorren begirale ofizial.
- 22 BASERRIAN: Erle-erreginen hobekuntza genetikoa.
- 24 KULTURA: Ernio Behean artxibategiak eskura.
- 26 KIROLA: Joxe Mari Iturzaetari omenaldia.
- 28 ZAHARRAK BERRI. ERRETRATU ZAHARRA.
- 30 MUSIKA: Junkal Guerrero andoaindarra klabezin jolea.
- 32 BEGI ARGIA
- 33 HEMEROTEKA
- 34 HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN
- 35 MERKATU TXIKIA
- 36 ZURE HIZPIDEA
- 37 AIURRITARRAK: "Erru orratzak". Koro Arruabarrena.
- 38 ESKOLA ARTEKOA: Adunako herri eskolako ikasleak.
- 40 PASADIZUAK



1

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

**Helbidea:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOIAN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32/3 Fax: 30 07 31

**Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.

**Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal.

**Erredakzio Batzordea:** Eloi Egibar, Manu Etxezortu, Jone Larrañaga, Jon Unanue.

**Erredakzioa:** Mainer Barandiaran, Agosti Garmendia, Amagoia Mujika, Agurtzane Ormaetxea, Idoia San Sebastian.

**Laguntzaileak:** Koro Arruabarrena, Joxe Eizmendi, Xabier Lasa, Mikel Maiz, Xabin Mujika, Joxe Agustin Otegi.

**Argazkiak:** Manu Mujika

**Komikia:** Beñat Azurmendi.

**Publizitate arduraduna:** Xabier Jauregi.

**Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika.

**Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola.

**Inprimategia:** Izarberri, Usurbil.

**Filmaketa:** VideoCys, Donostia.

**Lege-gordailua:** SS-202/94

**ISSN:** 1134-0614

**Tirada:** 7.500 ale.

Aiurri, 1. zenbakia. Beterri. 1994-4-29

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



# Agenda

## IKUSENTZUNEZKOAK

### ANDOAIN:

- Dipositiba emanaldiak:

- **Maiatzak 23:** KENIA. Egilea: Javier Fernández Sánchez. Urigain Kultur Etxean, 7.30etan.

- **Maiatzak 24:** GALAPAGOS. Egilea: Javier Fernández Sánchez. Urigain Kultur Etxean, 7.30etan.

- **Maiatzak 25:** CABO NORTE. Egilea: Kepa González. Urigain Kultur Etxean, 7.30etan.

- **Maiatzak 26:** THAILANDIA. Egilea: Kepa González. Urigain Kultur Etxean, 7.30etan.

### ASTEASU:

- **Maiatzak 24:** BIDAIA EZEZAGUN BAT. Egilea: Luis I. González. Gaia: Gipuzkoako itzulia.

### LARRAUL:

- **Maiatzak:** Mendiari buruzko diapositibak. Egilea: Rafa Berasategi.

## ANTZERKIA

### ANDOAIN:

- **Maiatzak 7:** "Hugo e Ines". La Salle aretoan. 20.00etan.

## MUSIKA

### ANDOAIN:

- **Maiatzak 6:** Musika Eskolaren kontzertua. Santa Krutz elizan. 20.00etan.

- **Maiatzak 27:** Piano eta biolina. Xabier Lizaso eta Ludwik Hamela Bober. Santa Krutz elizan. 20.00etan.

### ASTEASU:

- **Maiatzak 27:** Rock kontzertua eta dantzaldia Akelarre taldearekin.

## LEHIAKETAK

### ANDOAIN:

- **San Juan Jaiak 94 iragaritzeko Kartel lehiaketa.** Egile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu. Kartelek 59,4 zm altuera eta 42zm zabalera izan beharko dute eta ondoko testu hau azaldu: SAN JUANAK 94/ANDOAIN. Lanak aurkezteko epea maiatzak 26ean amaituko da. Urigain Kultur Etxean jasoko dituzte lanak.

- **Andoaingo Udalak antolatutako VI. "Rikardo Arregi" kazetaritza saria.**

1993ko maiatzaren 15etik 1994ko maiatzaren 15era bitartean

prentsa idatzian eskaraz argitartutako lanek daukate sari honetan parte hartzeko aukera.

"Herrietako aldizkariak" sarira edozein luzeratako artikulua aurkeztu ahal izango dira.

## JAIK

### ASTEASU:

- **Maiatzak 15: San Isidro. Baserritarraren eguna.** Goizeko 11etan: Meza nagusia, eskaintzak egingo dira. Gabriel Iraola harrija-sotzaile asteasuara 250 kiloko harri errektangularra jasotzen saiatuko da. Idi probak, Aiako Izeta eta Orioko Oriden baserriko idiekin. Eguardian Aitzondo elkartean bazkaria izango da. Txartelak Iturriondo tabernan daude salgai. Jose Mari Irazu eta Loidisaletxe bertso-lariek alaituko dute giroa, herriko trikitilari gazteak ere bertan izango dira. OHARRA: Antzolatzaileek dei berezia egiten die herritar guztiei egun horretan baserriar jantzia jar dezaten.

## IBILALDIAK

- **Maiatzak 14:** "Asteasu eza gutzen". Fermin Leizaolaren laguntzarekin, Asteasuko bira orokor bat egingo da interes etnografikoa eta historikoa duten gunek bisitatuz.



GOSARIAK - APERITIBOAK  
BILARRA

**GIRO EDERRA!!**

KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN



# HOL - ATZ

VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT



## OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN  
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.

☎ 69 30 63 - 69 07 34  
BILLABONA

# AIURRI

## BETERRIKO ALDIZKARIA

3. zenbakitik aurrera etxean DOHAINIK jaso nahi baduzu, egin zaitez harpide!, etxeraino eramango dizugu eta hilero AIURRI aldizkaria, xentimorik ordaindu gabe.

### BETE TXARTELA EDO DEI EGIN TELEFONOZ AIURRI ALDIZKARIAN IZENA EMATEKO

• Izen-emateko txartela ondoko liburudendetan utz dezakezu:

● ADUNA

HERRIKO Taberna

● ANDOAIN

IKAS-JOLAS Liburudenda  
MINIKOST Liburudenda  
STOP Liburudenda  
ERNAITZA Liburudenda

● ASTEASU

OGI ZURI Okindegia  
PATXINE Jatetxea

● BILLABONA

ROTETA Denda  
OGI GOXO Okindegia

● LARRAUL

HERRIKO Ostatua

● ZIZURKIL

ELBARRENAko Kultur  
Etxean (16.00-20.00)  
IRIARTE Etxeko Tabernan

• Izena telefonoz eman nahi izanez gero, dei ezazu **30 07 32** zenbakira.

AIURRI ALDIZKARIA ETXEAN JASO NAHI DU'T  
HILERO DOHAINIK

Izen-deiturak -----

Helbidea -----

Herria -----

# Eta zu, joango al zinateke

Amorio eta desamorio kontuetan garai batean Zelestina eta Zelestinoak deiturikoek zituzten eginkizunak betetzeko asmoa omen daukaten telebista saioak ugaritu dira azkenengo urteotan. Noren interes edota mesedetan ari diren eztabaidagai baldin bada ere, argi dago saioak egiten jarraitzeko adina partehartzaile eta ikusle, momentuz behintzat, badagoela. Senargai desesperatuak, andregai irainduak, ezinezko amodioak, baztertutako suhiak, gazte bakartiak...kamara aurrean, milioika ikusleren aurrean, jartzen dira *maitasun eske*. Egingo al zenuke zuk horrelakorik?



## Luis Montecelo, langabetua. Billabona.

Bai, zergatik ez? Ez nuke lotsarik izango. Nik uste dut horrelako saioek funtzio garrantzitsua betetzen dutela. Gaur egun kalean ez gara bata bestez fidatzen, jendea oso bakarrik dago eta ez dago bikoteak elkar ezagutzeko leku aproposik, garai bateko dantzaldiak bezala adibidez. Telebistara joanez eta zure bikotearekiko sentimenduak besteen aurrean erakutsiz sinesgarritasun handiagoa ematen diozu zure maitasunari. Isabel Gemiok, esate baterako, oso lan polita egiten duela iruditzen zait. Egunkarietako oharrek ere nahiko eraginkorrak dira.



## Peio Ipintza, kale-garbitzailea. Zizurkil.

Ez nintzateke joango. Oraingoz behintzat maitasuna bilatzeko ez daukat horrelako sistemak erabiltzeko beharrik. Eta beharra izango banu ere, ez dut uste, lotsa emango lidake. Horrelako saioek ez dute inongo funtziorik betetzen, hala ere, ulertzen dut zenbaitzuk bide hori hartzea. Ziur aski bertara joaten direnek ezingo dituzte euren arazoak aurrez aurre konpondu. Kasuren bat edo beste konponduko dute baina ez dute inongo funtzio sozialik betetzen. Behin bakarrik ikusi dut eta pasada bat iruditu zitzaidan, *tele-basura*. Katez aldatu nuen.



## Maider Artola, ikaslea. Aduna.

Ezta erotuta ere. Hemen nahikoa mutil badaukagu telebistara ridikuloa egitera joan gabe. Mutil batekin egon nahi badut, esan egingo nioke eta ezin bada, ba ezerrez. Nik, adibidez, zizurkildar bat daukat begiz jota, zozoa da, ez dit kasurik egiten baina, hala ere, ez nintzateke joango. Ez dut ulertzen zergatik joaten diren. Lehengoan ikusi nuen aurreneko aldiz Gemioren saioa eta...ridikulo galanta! lotsatu eta dena egin nintzen ikusten. Nire etxean beti ikusten dute, ridikuloa egiten dutela esaten dute. Izugarritzko barreak egiten dituzte.

## ANGAS

GERMAN MARTIN GARCIA

Gasarentzako instalazioak  
Propano tankeak  
Berogailuak

Juan XXIII plaza, 3 - ☎ 36 62 18 - IASARTE

## Joze Ramon

### Taberna

**PINTXO EDERRAK !!**

KALENAGUSIA, 16 - ANDOAIN

## AIARRAIA

### Edaritegia

**Pintxo hotz  
eta beroak**

Kaleberria, 11 - ☎ 59 37 38 ANDOAIN

# telebistara maitasun eske?

## Mertxe Sarasua, etxekoandrea. Asteasu.

Ni ez nintzateke joango. Horrelako saioak nahiko ondo daude. Nik normalean ikusten ditut denbora pasatzeko, batzuetan barre egiten dut, baita negar beste batzuetan ere. Kasu guztiak konpontzen ez badituzte ere, batzuk bai. Jendea nahiko desesperatuta egon behar du joateko. Asteasun ezin daiteke esan horrelako arazorik ez dagoenik; akaso bai, arazoak nonnahi egoten dira. Bikoteek euren artean hitz egingo balute, ez lirateke horrenbesteko arazoak izango, gaur egun oso gutxi hitz egiten baita. Etxean umeek ere ikusten dute saioa.



## Iñaki Aginalde, baserritarra. Larraul.

Ni ez nintzateke joango, ezta pentsatu ere, ez daukat horrelako problema-rik. Eta bestela ere, ez nintzateke joango. Hori lotsa! Ondo dago programa hori, negar pixka bat egiten dute eta arazoak konpontzen dituzte. Nik problemak dauzkatenean etxean konpontzen ditut. Jende guztiari gustatzen zaio saio hori ikustea, tabernan saioa hasten denean jende guztia gelditzen zaio hari begira. Jendeak jakin nahi izaten du besteei zer pasatzen zaien, kuriosidadea izaten du. Ez zait iruditzen Larraulen inor ausartuko litzatekeenik horrelako saio batera joaten.



## Arantxa Miguez, neskamea. Andoain.

Ez nintzateke joango, gauza horiek intimoak dira eta norberak konpondu beharrekoak. Hala ere ulergarria zait beste batzuk joatea, ausardia handia daukate eta nik miresten ditut. Saio horietara joaten direnak beste erremediorik gelditzen ez zaielako joaten dira. Horrelako saioak ikusten ditut, gustatzen zaizkit, denbora pasatzen dut eta bide batez barre pixka bat ere egiten dut. Ez zait iruditzen Gemioen karabana Andoinen ager daitekeenik. Hala ere, auskalo...



5



LANBIDE EZBERDINEN  
ARTEKO KOORDINAKETAK

### GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44  
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGBELTSARITZA



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

ASESORIA  
GESTORIA  
ASEGURUAK

## ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22  
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN

## GARBI

Drogeria  
Lurrindenda

Kale Nagusia, 18 - ANDOAIN

# Berriak

## ANDOAIN

● Martxoaren 26-27 bitarteko gaucan **hartu zuen su Leizotzeko Sagamuño baserriak**. Sua ganbaran hasi zen eta igande goizerako baserria ia osorik hondatu zuen. Sua itzali zuen suhiltzaile zerbitzua asko kritikatu dute Sagamuñokoek nahiz bizilagunek, izan ere, uste baitute beraien jokaera ez zela batere egokia izan. Gau hartan suhiltzaileen hiru kamioiek jo zuten Sagamuñora sua itzaltzera. Beraien ura agortu ondoren Ordizira jo zuten ur bila, ingurukoek behin baino gehiagotan hantxe bertan ura zeukatela esan arren, hiru urpaldo eta Leitzarano ibai bera. Beste askok, suhiltzaileak boluntarioak izanik, esperientzia handirik ez zeukatela adierazi dute. Igande goizean baserriko beste gela batean piztu zen gaizki itzaltako sua eta artean hondatu gabeko gelak erre zituen.



● **Andoingo talde antimilitaristak** taldearen aurkezpena egin zuen hilaren 21ean, aurki epaituko dituzten bost instsumiso andoaindarren egoeraren eta aurrera begira duten asmoen berri emateko. Era berean gutxi barru espetxeratuko duten Julio Abrego gaztearen egoeraren aipamena egin zuten.


● **Hirurogeita hamar gaztek**, gutxi gorabehera, hartu zuten parte **Jarraik** hilaren 14ean deituriko **manifestazioan**. Hilabete honetan zazpi andoaindar epaituko dituzte Leitzarango autobiaaren aurka sabotaia egitearen eta hildako hiru militante euskaldunen omenaldietan parte hartzearen akusaziopean. Honen eta hilaren 22ko manifestazioaren asmoa epaiketa horiek salatzea da.

● **Autobiako lanetan ari zen langile bat hil egin zen eta beste hiru zauritu** ere izan ziren hilaren 19an Sorabilla auzoan, errepide nazionalaren ondoan eraikitzen ari diren zubibidea erori zenean. Istripua arratsaldeko zazpi t'erdietan gertatu zen, eta ingurukoek diotenez, hormigoizko habea erori zenean izugarritzko zarata egin zuen. Langileak zubibidearen gainean zeuden, 25 metroko altueran, 135 tonatako habe baten gainean. Bat-batean erori omen zen. Erorketa zerk eragin zuen oraindik ez dakite.

Egun horietan habeak sostengatuko zituen bost zutabe egiten ari ziren. Hauek autobidea eta errepide nazionala lotuko dituen arrapala eraikitzeko asmoarekin ari ziren egiten. Lan honetan, hain zuzen ere, duela hilabete eskas hasiak ziren, eta istripua gertatu eta hurrengo egunean amaitzen omen zen lan hau egiteko epea. Adituek ekin diete dagoeneko ikerketa lanei.


## ERNIO BEHEA

● Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkigo Udalek herri hauetan zehar **ibilaldiak oinez egiteko gida-liburua** argitaratu dute. Uztaila aldean kaleratzeko asmoa daukate. Bertan inguru hauetan egin daitezkeen ibilaldiez gain, jateko, lo egiteko, intereseko gauzak ikusteko eta beste hainbat xehetasun agertuko dira. Ibilbideak zehatz-mehatz deskribatuko dira, iraupena eta bazter txikien berri ere emango da. Liburua euskara, erdara eta ingelesez idatzia egongo da. 3.000 ale banatuko dira.





## BILLABONA-AMASA



Maiatzaren 15ean Amasako jaiekin bat ospatuko da **Euskaldunon Egunkariaren jaia**. Hau dela eta, bi jaiak bat eginda, egitarau bikaina osatu dute hainbat eta hainbat herritarren laguntzaz. Herriko jaietako ekitaldiak frontoian eta herriko plazan burutuko dira: eskolarteko ume lasterketa, herri kirolak eta bertsolariak goizean; gazteen esku-pilota finala, bazkaria eta Euskadiko joko-garbi txapelketaren gazteen finala, arratsaldean.

Egunkariaren jaia hiru gune edo zelaitan egingo da: batean txalaparta, dantzariak, bertsolariak eta trikitilariak izango dira goizean; arratsaldean berriz, Maixa eta Itziar trikitilariak eta Arkaitz taldearekin dantzaldia. Bigarren gunean,

rock kontzertua izango da arratsaldean. Bertan parte hartuko dute: Tapia eta Leturia, Anje Duhalde eta Exkixu, bertsolari gazteak ere bertan izango dira. Hirugarren gunea haurrei begira egongo da batez ere. Sebastopoleko titiriteroak izango dira lekua girotzeaz arduratuko direnak eta txiki eta handien gozamenerako gaztelu puzgarriak, ohe elastikoak, trapezioa, alanbreia, malabarra, zangoen tailerra, motorra, antzerkia, espumazko gerra, eta gozozaleentzat ere algodoi eta palomitak egongo omen dira. **IKASMENDI** jaia deitu diote haurrei bereziki zuzenduta dagoen honi, izan ere Euskal Herri osoko 200 ikastetxek ezagutzen dute dagoeneko Egunkaria Ikasmendi deituriko ale berezi honen bidez.

Eguerdiko hamabietan zenbait politikari, kultur gizon eta emakume, kazetari, artista, kirolari, a.kate eta zinegotzi bilduko da Usotoki elkartearen Egunkariari bere atxekimendua eskaini asmoz.

# TODO TODO



## FABRIKAKO PREZIOAK



## ZURE EROSKETEK ABANTAILARIK HANDIENA IZAN DEZATEN

Irun-Madrid errepidea,  
Adunako zubia pasa eta  
eskubitara.  
Andoain-Zizurkil ibilbidea.

## ADUNA

Elbarrena pol., z/g.

-ANDOAIN-

## Aurten izango da aurrekonturik

Alderdiak bitan banatuta: PSE-EE, EuE eta PNValde batetik, HBeta EA bestetik



© EGIN

Erredakzio hau itxi eta egun gutxi batzuetara egin bide da aurtengo aurrekontuak onartzeko Osoko Bilkura. 1993an aurreko urteko aurrekontuaren luzapenarekin aritu zen Udala lanean. Azkenengo aurrekontuari Alkatetzak, PSEk, eta EAJ-PNVk eman zioten oniritzia, gainerako alderdiak abstenitu egin zirelarik. Oraingo honetan berriz, nonbait, guztiak saiatu dira aurrekontu baten edo bestearen inguruan biltzen, nola edo hala, orain arteko egoera ez-ohizkoak jarraitu behar ez zuelakoan. Egungo alderdi politikoek Udalan duten ordezkariak (PSE-EE 4, EuE 4, HB 4, PNV 3, EA 2) nabarmen agertzen du akordioak ezinbestekoak direla aurrekonturen batek aurrera egin behar baldin badu. Eta hain zuzen ere, alderdien arteko zenbait hurbilketa eta urrunketaren ondoren bi proposamenen inguruan bildu dira Udal-zinegotziak: bata, PSE-EEren eskuetan dagoen Alkatetza, EuE eta PNV biltzen ditu, besteak berriz, HB eta EA. Aurrekontuei dagozkien filosofiak nahiz herriko eta erakundeen errekurtsioen erabilera ezberdinak bereiztu ditu bi taldeak.

### Alkatetza, EAJ-PNV eta EuEren aurrekontua

Alkatetzak eta bi alderdiak, bat eginda, 1.078 milioitako aurrekontua hitzartu dute. Gastu arruntei 1.036 milioirekin egingo zaie aurre. 36 milioi inbertsioetara zuzenduta egongo dira. Bestalde, aurrekontuak bere gain hartu behar ko ditu egun Udalak duen 1.141 milioitako zorra.

Alkatetzak bere aurrekontua aurkeztu zuen, baina ez EuEk ez PNVk ez zuten begi onez ikusi. PNVk aurrekontu horri aurkeztutako enmiendak erretiratu eta EuErekin batera beste aurrekontu bat egin zuen. Aurrekontu honi, hain zuzen ere, bildu zaio Alkatetza eta osatu dute hirukoa.



## OHARRA:


AIURRI aldizkariko erre-dakzioa apirilaren 22an itxi zen. Hauxe da, hain zuzen ere, Alkatetzari berak proposatutako aurrekontuari buruz idatzeko eskatu genion idatzia jasotzeko epea. Orain arte ez dugu idatzirik jaso.



Alkatetzak bere aurrekontua aurkeztu eta EuE-EA eta PNV enmienda batzuk aurkeztu asmoz bildu ginen. Diru-kopuru hura ez zen gure nahiak betetzeko nahikoa. Ondoren HB eta EAk beste aurrekontu bat aurkeztu zuten. Udal-filosofia berri bat ezarri nahi zutela eta, bestalde, zifra batzuk errealitatearekin bat ez zetozela konturatu ginen. PNVk orduan Alkatetzaren aurrekontuaren ildotik jarraitzea erabaki zuen. EuE-rekin zenbait ezadostasun izan arren, aurrekontu bat aurrera ateratzeko nahiak akordioa eraman gintuen.

Alkatetzaren aurrekontuari guk ezarritako aldaketak: diru-sarrerak erreallitatera egokitu genituen, 16 milioi murriztu. Irteerak ere murriztu genituen: Bertxin zentralako argi-indar kontsumoa, esate baterako. Kontzeptu batzuk ere gehitu genituen: La Salle eta Ikastolari 30 milioi, AIURRI aldizkariari 5-6, eta Hirugarren Munduari 4 milioi.

Aldaketa hauen ondoren Udaleko gutxieneko gastuei aurre egiteko moduan gaudela uste dugu. Halere, inbertsioak ere egin behar zirelakoan geunden: Udaltzaingoarentzat kotxea, zenbait proiektuen idazketa, Buruntzako ur-horniketa eta bidearen egokipena eta Basteroko urbanizazioa, 36 milioi guztira. Honi aurre egiteko 21 milioitako zorra aurrikusi dugu. Mailegu baten bitartez eta Udalak 33. poligonoan duen lur-saila salduz aurre egingo diogu berari.



Andoango Udala gaur egun 1992an onartu eta iaz luzatutako aurrekontuarekin ari da lan egiten. Euskal Ezkerrak eta beste alderdi batzuek Udalak aurrekontu orekatu baten beharrean zegoela uste izan dugu. Bi xehetasun hartzen ditu aurrekontu honek kontuan: batetik, egun Udalak dituen errekurtsioekin bat etortzea, eta bestetik, bizi dugun egoera ekonomikoa aintzat hartzea.

1994ko aurrekontua EuEren erantzunkizun eta ahaleginari esker gauzatu da. PSE-EE alderdiak, azkenean, akordioaren bidea hartu izana garrantzitsua da, eta horregatik, poztu egiten gara. Aurrerantzean Alkatetzak elkar ulertzearen politikaren alde egitea espero dugu, oposizioarekiko prepotentzia jarrerak baztertu, izan ere, Alkatetza azken honen beharrean dago, Udala gobernuak ez baitauka gehiago erabatekoa.

Euskal Ezkerrak beste alderdi batzuekin akordioa eta elkar lanaren bidea jorratzearen arrazoiak, Udalak aurrekontu egoki batzuk izatea da. Bi dira aurrekontu hauek posibilitatzen dituzten asmoak:

- a- Egund Udalak bizi duen egoeratik irtezeko bidea egiten hastea.
- b- Andoin herriaren mesedetan errekurtsio publikoen erabilera egoki eta arrazionala.

Orain arteko subentzioak, pertsonalaren soldata eta pertsonala bera ez gehitzea dira aurrekontuaren xehetasunetako batzuk. Honez gain gaur arte Udala-langileek egiten zituzten aparteko ordu kopurua murriztea erabaki dute. Neurri guztiak orain arteko gastua mantentzera eta ez gehitzeara daude zuzenduak. PNVren esanetan azken legegaldi honetan gastua asko kontrolatzea lortu da eta poliki-poliki egoera ekonomikoak bere onera egingo duelakoan dago, "sarrera arrunta guztiak Udala mantentzeko ezinbestekoak diren gastuei aurre egitera bidaruta daude soilik".

Hiru alderdiak ez dira, ordea, 30 milioitan ados jarri, hain zuzen ere PNVk Ikastolari eta La Salle ikastetxeari ematea proposatu duen diru-kopuruan. Azkenean, eta Juan Mari Artola jeltzaleak aurreratu digunez hasieran "bestelako gastuetarako" egokitu-ta zegoen diru hau, erdi bana, ikastetxei ematea onartu dute sozialistek, EuEk berriz, ezezkotan jarraitzen du puntu honi dagokionean.

Euskal Ezkerrak adierazi digunez ikastetxeen finantziarioari dagokionean oso argi dauzkate gauzak eta orain arte izan duten jarrera bera izaten jarraituko omen dute aurrerantzean.

Aurrikuspenak kontuan hartuz, aurrekontu hau aurrera aterako dela esan daiteke. Lehenengo, guztiak "alternatibotzat" jo duten aurrekontua bozkatuko da. Ondoren La Salle eta Ikastolarako dirulaguntza ematea proposatzen duen enmienda aurkeztuko du EAJ-PNV alderdiak eta, iritzia aldatu ezcan, PSE-EE onartu egingo du eta EuE abstenitu egingo da. Azkenik, hiru alderdiek adostutako aurrekontua bozkatuko da, eta onartu.

Bide batez, esan aurrekontuak onartzeko ematen ari den atzerapenak, orohar, egonezina eta haserre eragin duela.




## Udal akordioa, batasunaren bidean

Argi gorriak piztuta zeuden aspaldidanik, eta gauzak honela, aurtengoan ere Herri Batasunak PSOEn gestioingintza beltza aldatzeko proposamen zehatza egiteari eman dio. Horrela osatu ditugu aurrekontu alternatiboak, herrigintzarako ditugun helburuen termometrotzat jo daitezkeenak.

Pertsonal, Mantenimendu eta beste gainontzeko (mila milioitaraino) gastu-kopurua egokitzea da gure aurrekontuaren asmoa. PSOEnarekin alderatuz gero, beste muturrean geratzen dena. Gauzak honela, guri dagokigu alternatiba izatea, errealitate baztertuak kontuan har daitezzen, Udalaren eguneroko gestioan alferrik gastatzen diren diruak soka motzetik lotzeko eta PSOeri aurre egingo dion abertzaleen lokarria osatzeko. Horregatik, aurrekontuak osatu bezain pronto, gure proposamena EAri erakutsi genion elkarrekin lanean jartzeko. Elkarlan honen bidez HB/EA aurrekontu proposamen baterakorra izan da, itxaropenez beteriko elkarlana eta abertzaleok zioronez hartu behar duguna. HB/EA akordioa batasunaren bidean.

PNV eta EuErekin ere hitz egin dugu, eta erantzunak halamoduzkoak izan dira, beti ere PSOEn ondoan gusto askora daudela adieraztera datozenak. Txapel bakarrekin bi buru estali ezinean. Zer espero zitezkeen azken urteetan PSOEn gonazpian eta morrontzan egon den PNVtaz? Zer, ustelkeriaz jota auto-disolbaketara eman den EuEtaz? Herri Batasunaren alternatiba itotzea baino ez dute buruan. Beti ere nazionalismo espainolaren aterpeari zuloak estaltzea nahiago dute herri honen etorkizuna txuri, gorri, berdez margotzea baino.



Andoingo Eusko Alkartasunaren betiko nahia eta gogoia ahalik eta azkarren aurrekontu batzuk izatea izan da. Eta horregatik aurrean ere ahalegin guztiak egin ditugu ideia hori aurrera eramateko. Alderdi politiko guztiak "saltsa" horretan murgildurik geundela, hor sortu ziren elkarrizketa mamitsu batzuk Herri Batasunarekin.

Elkarrizketa hauen helburu nagusia aurrekontu "alternatibo" batzuk aurkeztea zen. Zenbait bilera egin ondoren adostasun batera ailegatu ginen eta aurkeztu genituen Udaletxean.

Orduan sortu ziren dardarak eta mugimendu serioak, ordura arte ez baitziren izan, guk uste, elkarrizketa sakonik. Uste dugu geuk aurkeztutako aurrekontuei "esker" nolabait ere beste alderdiak bultzatu egin ditugula adostasun batera iristera.

Alderdi bakoitzak bere ikuspegia izanen du, baina esan genezake geuk aurkeztutako aurrekontua oso errealista dela, argia, garbia eta ziarra. Baita ere, aldarrikatzen da zenbait kontseilu, berez martxan egon behar zutenak, indartzea eta behin-betiko merezi duten garrantzia ematea.

Galdera batekin bukatu nahi nuke: Zergatik ez ote daude martxan Ongizate kontseilua, Eskolen arteko kontseilua, Gazteen arteko kontseilua? Gogo falta edo...

## Herri Batasunaren eta Eusko Alkartasunaren Udal Aurrekontua

Bi alderdi hauen ustez aurrekontu berriei begira hiru dira hartu beharreko neurriak:

- 1- Gobernu Batzordea alderdi guztiei ireki, hauteskundeetan jasotako botuen araberako ordezkariarekin.
- 2- Gastu eta sarreren kontrol ekonomikorako batzorde berezia sortu.
- 3- Mantenimendu eta beste horniketen gastuak murriztu.

Bi helburu nagusi dute neurriok: batetik, Udaleko egoera ekonomiko okerra, eta, bestetik, une honetan ez-demokratikotzat jotzen duten egoera gainditzea.

Laburbilduz, hauexek dira beren proposamenaren ardatz nagusiak:

- a- Herria jasaten ari den langabezi egoerari aurre egiteko politika sozial kutsua duen egitasmo oro bultzatu: Lanbide Heziketarako tailerra, lan sustapenerako eta denboraldi luzeko langabetuentzako egitasmoak.
- b- Udal Kultur Kontseiluan gazteen arazoari zuzendurik egongo litzatekeen partida berezia.
- c- Emakumearen problematika berezia gainditzeko lagunduko duen partida berri baten sorrera.
- d- Une honetan jipoi ekonomikorik handiena kultura eta euskara arloak jasaten ari direlakoan daude gestio txarra eta oposizioko alderdien akordio eza dela medio, horregatik 11 milioitako igoera proposatzen dute.
- e- Iharduera guzti hauen protagonismoa herri erakundeek izan behar dutelakoan daude, horregatik herri taldeen topagune eta elkarrizketarako gune aproposak indartzea proposatzen dute, hala nola, Ongizateko Kontseilua, Kultur Kontseilua eta Hezkuntzarako Kontseilua, bakoitzarentzat horniketa ekonomiko sendoak eskainiz.

"Mantenimendu eta pertsonal gastuak murriztea da gure proposamenaren helburu nagusia", diote, "izan ere, gure ustez gastu estrukturalak gehiegizkoak dira. Honen arrazoiak hiru faktoretan aurkitu behar dira: lehenengoa, aurreko lege-gintzan langilegoarekin emandako negoziaketa eta lortutako "akordioa"; bigarrena, Udal Organigramaren eta sistema informatikoaren diseinu okerra edo amaitu gabea; eta azkenik, material, tresneria eta beste hornigaien erosketaren antolaketa okerra.

Inbertsioei dagokienez zera proposatzen dute:

- a- Buruntza auzoko ur-horniketa.
- b- Karrika-Larramendi-Kale Nagusiaren semaforizazioa.
- c- La Salle-Berrozpe ikastexean kokaturik dagoen udal patioaren estaltzea.
- d- Egun AEK euskaltegia dagoen Udal lokalaren konponketa eta lanen amaiera.



## Ingurugiroaren aldeko kanpaina

# Aduna

Aurki ekingo dio Adunako Udalak ingurugiroa zaindu eta gordetzeko kanpaina berri bati. Herritarrek arazoaz jabearaztea eta kontzientziatzea izango da aurreneko urratsa, eta ondoren zenbait kutsadura arazo konpontzeko bitartekoak jarriko ditu Udalak. Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona eta Zizurkilgo eremuan lan egiten duten bi teknikari ari dira kanpaina antolatzen eta une honetan Diputazioa ematen ari den dirulaguntzetaz baliatu da Udala.

Gaur egun Adunan biltzen den zaborra ez da berziklatzen eta zabor-mota ezberdinak nahasten dira bilketan. Hasteko papera, beira eta pilak beste zaborraz bereiztuta bildu nahi dira kontenedore berezietan. Honez gain ohizkoa den beste zaborra biltzeko kontenedoreak jarriko ote diren zalantzan dago oraindik.

Gaur egun zaborra astean bi aldiz biltzen da, astelchen eta ostegunetan hogeiren bat tokitatik. Kontenedoreak jartzekotan beste hainbeste jarri beharko lirateke, eta batzuei antiestetikoa iruditzeaz gain, oso garbia ere ez zaie iruditzen. Izan ere, orain herritarrek zaborra bi ordu lehe-nago kaleratzen badute, kontenedoreak egonez gero, edozein momentutan utziko omen lituzkete bertan eta, zenbait egun igarota, kontenedoreak asko zikindu eta usain txarra utziko lukete. Beira botatzeko kontenedore bat nahikoa izango litzateke.

### Zabortegei inkontrolatuak

Honez gain, herrigunetik ez oso urrun bost edo sei zabortegei inkontrolatu daude, edozer gauza botatzen omen du jendeak bertara. Kanpaina honen asmoa hauek garbitzea eta zaborra botatzea debekatuta dagoela esaten duten txartelak jartzea ere bada.

Kasu honetan zein zaborrak erretzeko egiten diren kasuetan bezala, gizabakoak eta baita enpresak ere izan ohi dira errudunak. Kanpaina batzuei zein besteei zabalduko zaie. Enpresei dagokionez Adunan badaude une honetan hauek eragiten dituzten zenbait zabortege. Bat edo beste orain dela gutxi garbitu dute Udalaren aginduren ondorioz, besteren bati espedientea ere ireki behar izan zaio.

Orain dela gutxi arte Buruntzako zerbitzu amankomunatuak erabiltzen zuten Aduna eta inguruko zenbait herri zaborrak erretzeko. Gehigizko gastu ekonomikoak izan dira amaieraren arrazoia. Desagertuz ge-

rozтик Tolosara jotzen dute herriok euren zaborra erretzeko. "Aduna bezalako herri txiki batek ezin dio eguneroko bilketak esan nahi duen dirutzari aurre egin". dio Jabier Zabala alkateak, "horregatik garbi dago epe laburrean bilketa-zerbitzua, egunerokoa ez izan arren, amankomunean egin beharko dugula".


Kanpaina zehatz-melutz nola burutuko den oraindik ez dago oso argi, baina ziur aski, asmo guzti hauek gutunenez edota bilera baten bitartez emango zaizkie ezagutzera herritarrei.



Herri inguruan dagoen zabortegetako bat

**Joxe Mari**  
**ITURRALDE**  
ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.  
ADUNA - ☎ 69 20 81



**Altzariak**

KALETXIKI, 6 ANDOAIN  
FAX ETA TELF. 59 07 61



ONDARRETA KALEA, 7 - TELF. 591759  
20140 - ANDOAIN



# Herriz herri

## Iritsi dira Santa Krutzak

# Andoain

Iritsi dira jaiak eta espero dezagun Leitzarango urek Santa Krutz elizako gurutzeko Kristoaren oinetatik gora ez igotzea. Martin Ugaldek behin kontatu zuenez Andoaingo esaera zaharren batek ziurtatzen omen du horrelakorik ez dela gertatuko; hala ere, behin igo omen zen gorago, eta herriak geroztik errespetu pixka bat galdu omen dio Kristoari.

Esanak esan, andoaindarrek zerbaiti errespetua aitortzen badiote, Santza Krutzek duten izaera herrikoiari da. Eta ahalegin horretan urtez urte, jende berria bereganatuz Jai batzordeak izugarrizko lanak hartzen ditu beraien ustetan oso urria den aurrekontu batez

-hiru milioi eskas aurren- herriari aspaldiko jai hauek eskaintzeko.

Aurtengo egitarauak ekitaldi berriak eta zahar-berriak erakusten ditu. Berrien artean herriko koadrilen partehartzea izan da Jai batzordekide diren Joxe Antonio Irazu eta Juani Lizasok azpimarratu nahi izan dutena. Hau dela eta, astelehena, kuadrilen eguna, hartu dute jaietako egun nagusitzat eta aurren Beheko Plazan izango den bazkarian jende gehiagok parte hartuko duela uste dute.

Zahar-berrien artean artesau feria azpimarratu behar da, izan ere, orain dela hiru urte ere asmo bera izan arren, eguraldi kaxkarrak galerazi egin zuen, ondorengo bietan bezala. Aurren eguraldia lagun izatea espero dute.

Hiru danborradak, Santa Krutz Peñarena, Zumeatarrarena eta Amnistiaren Aldeko Batzordearena ohi den lez ekitaldirik sonatuenak izango dira jaietan. Aipagarria da, bestalde, Jai batzordeak pregonaria izateko aukeratu duen Mikel Iradi; «epaitu berria den gazte intsumiso hau aukeratuz Andoaingo gazte asko soldadutzaren aurka daudela eta arazoak jende asko ikutzen dela adierazi nahi izan dugu», diote bi lagunek.

Andoainen inork ez du ziur aski zalantzan jarriko Santa Krutzak parranda egunak direnik, hala ere, Xatonio eta Juani kexu samar dira andoaindar gehienentzat astearte ez delako jai eguna eta honek, nolabait, partehartzea, mugatzen omen du, gazteena batez ere. Hala



1964ean emakumezkoak danborradan irtetzen ziren

ere, era berean ez omen dute nahi, batzuek proposatu bezala, koadrilen egun nagusia larunbatean izatea, "orduan kanpoko jende gehiegi biltzen baita". Egin omen ziren garai batean enpresa eta dendei egun horretan euren atek ixteko eskariak baina normalean Kale Nagusiko denda txiki batzuk baino ez omen dute egiten. Hala ere, nola edo hala, jaiak eta parranda ziurtatu digute. Zumeatarra elkarteak, Santa Krutz Peñak, Errekaburu elkarteak, Otita kultur elkarteak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Txirrindulari Eskolak eta auzotarrek, batzordean bilduta, osatu duten egitarauak, zahar eta gazteei, Santa Krutz jai alaiak pasaraziko diela esanez agurtu zaizkigu Xatonio eta Juani.



# Zabala


Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN  
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

# ZADA

Elektrikariak

Kale Nagusia, 33 - Telf. 590206 - ANDOAIN



## Ikertu dituzte meategiak

**Asteasu**

Maria Milagros eta Laurak-Bat meategiei buruzko lehenengo ikerketak amaitu ditu dagoeneko INGEMISA enpresak. Ikerketen helburua inguruan gertatu izan diren zenbait hondorapen eta lur-jausien arrazoia aztertzea izan da, halaber, Udalak segurtasun

neurriak hartu nahi izan ditu lur-mugimenduak etengabeak direla ikusita. Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmen baten bitartez finantziatuko da ikerketa.

Laurak-Batek eragin du herritarren artean kezkarik handiena, izan ere, 60eko hamarkadan itxi zenetik, bertan dagoen zulapea gero eta handiagoa eta zabalagoa bilakatu da. Bizilagunek diotenez betidanik bota izan dira zabor eta hondakinak. Azkenengo tamainazko bete-lana iazko udan egin zen, baina inoiz ez da estaltzerik lortu. Egun



Urteetako zuloa

zulapeak 22m baino gehiago ditu sakonean eta hondoratzen jarraituko dela diote teknikoeak. Azpialdeko galerien egoera ezagutzen ez bada ere, guztiz hondoratuta egongo direla suposatzen da. Horregatik, INGEMISAk berari dagokionez behin-betiko bete-lana egitea eta ura sartu ez dadin estaltzea proposa-tzen du.

Maria Milagros meategiari dagokionez egoera bestelakoa da: lau solairuak urez beteta daude, baina behin hustu ondoren bertara sartu eta ikerketa zehatzagoak egin ahal izango direla uste da.

### Meategiek ez dituzte hondoraketak eragin

1961ko otsailean gertatu zen Añorga baserriaren hondorapena izan da urteetan izan den arrisku seinalerik garrantzitsuena. Teknikoeak diotenez bizilagunek beti pentsatu izan dute berau Laurak-Bat meategiak eragin zuela, baina ikerketek bestelako arrazoiak eman dituzte ezagutzera. Urak eragindako lur-mugimenduak izan omen dira

zenbait gertacren arrazoia. Azaletik behera hiru edo lau metro tara, buztinezko zoluan, ur-bide naturalak sortzen omen dira lur mugimenduak eraginez. Añorga baserriaren hondorapenaren arrazoia horixe izan zela diote, eta ez meategia.

Une honetan

Elizmendi inguru ia osoan eta, eskolarako bidean batez ere, segurtasun eta kontrol neurri bereziak ezarri dira edozein mugimendu egonez gero berehala ohartu eta konpontzeko.

### Mende bukaerako meategiak

Igeltua ateratzen zeneko bi meategi hauek XIX. mende bukaeran eta XX. ren hasieran hasi ziren eskulagintzaz hustiratzen. 1910tik aurrera industria mailako hustirakuntzari ekin zitzaion. Gerra aurretiko urteetan egin omen ziren lanik garrantzitsuenak. 1940. urtean ezarri ziren era ofizialean eta 1969an legez itxi. Maria Milagros meategiak 70m inguru ditu sakonean eta lau solairuetako galeriek bataz beste 12m zabaleran eta 25 altueran neurtzen dute. Laurak-Bat ez da hain sakona eta hustirakuntza ere ez da inoiz hain handia izan. Aipagarria da, hala ere, lehenengo solairutik hirugarrenera eraikitako goitik beherako putzua. Putzuan bertan igogailu bat dago.

**PATXINE  
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL  
SUKALDARITZA ETA ETXERAKO POSTREAK  
Erremerari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



**LIZARRA  
GARBITOKIA**

LANEKO JANTZIETAN  
ESPEZIALIZATUAK

7. Poligonoa, 8. Pabeloia - ADUNA ☎ Garbitokia 69 31 27  
109. Posta Kutxatila - ANDOAIN ☎ Etxekoa 59 06 32

PINTXOAK  
OGITARTEKOAK  
GOSARIAK

ESPEZIALITATEAK:  
PERRETXIKOAK  
LABEAN  
ETA NAHASKIAK



KALE BERRIA, 12

ANDOAIN



# Herriz herri

## Billabona-Amasa

14

# Baliabide sozialen ikerketa

Orain egun gutxi eman da ezagutzera HEZIKETA eta ZERBITZUAK deituriko enpresak eginitako ikerketa. Billabonako arlo eta baliabide sozialei buruzko ikerketa burutu berri dute eta egungo egoera hobetzeko proposamenak ere egin dituzte.

Udalak eginitako eskariari erantzunez burutu du azken bi hilabeteotan ikerketa HEZI-ZERBEK. Egun dauden baliabide sozialak eta ekimen sozialarekin zerikusia duten arloak ikertu dituzte. Batetik, elkarte, talde eta bestelakoei galdetu zaie herrian, eta bestetik, ongizate soziala, hezkuntza, kultura eta osasun arloekin erlazionatuta dauden zerbitzuak aztertu dira.

### Gazteak abandonatuta

Hirugarren adina deituriko esparruak bizi omen du egoerarik onena. Zaharren etxea, erresidentzia dira, besteak beste, zaharrenek dituzten zerbitzuetako batzuk.

Gazteen egoera aldiz, ezberdina da. Aipagarria da 12-25 urte bitarteko gazteek daukaten zailtasunetako batzuk; hezkuntza mailan esate baterako, herritik kanpo joan beharra

daukate ikasketak jarraitzeko. Elkartei dagokionez, aukera urria omen dute gazteek. Bestalde, helduen eta gazteen munduen arteko tentsioa ere nabaria omen da. Halaber, erakundetan, gaztedia arloan hain zuzen ere, hutsunea somatzen omen dute: Udalak gazteak kontuan hartzen dituen plangintzarik ez omen dauka. Honek guztiak, gazteak "abandono" egoeran daudela adierazten omen du, HEZI-ZERBen ustez.

### Haurrak eta emakumezkoak

Hautzaroiari dagokionez ere antzemanen dira zailtasunak: eskolaz kanpoko ekintzak antolatzeko garaian edota plangintza ezberdinen artean dagoen koordinazio faltan.

Emakumeen arloari dagokionez, hauek egin ditzaketen eskariei erantzuteko

plangintzarik une honetan ez dagoela azpimaraten du HEZI-ZERBEK.


Drogomenpekotasunaren inguruan berriz, zera aipatzen da: gai hau dela eta, gazteei "presioa" egiten zaie eta presio hau gazteek "kontroizat" hartzen dutela. Era berean, ekintza zehatzak falta omen dira. Drogei dagokionez, alkoholaren arazoa da adin eta era ezberdinko taldeen artean azpimarragarritzat hartu duten arazoa.

### Kultura

Kultur arloan Udal politika zehatzaren falta ikusi dute, aurreko urteetako programaketa, besterik gabe, jarraitzen baita. Era berean, Udal azpiegitura hobetzea egokia izango litzatekeela uste dute. Kultur egitasmo berrien beharra izanik, aukera gutxien duten taldeak (gazteak, emakumeak...) bertan parte hartzea interesgarria izango litzatekeela adierazten du ikerketak.

Udalak dagoeneko bere eskuetan dauka ikerketa eta, konponbideak aurkitu asmoz, aztertzeari ekin dio.

Agosti Garmendia



Erreboteko plaza

**EUSKALDUNA**



**Edaritegia**

Bilar-jokorako aretorik  
aproposena!!

Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA



**BRONTE**

**ZENTRU OPTIKOA  
BILLABONAN**

ZURE IKUSMENA GRADUATZEN DUGU  
KONTAKTU LENTEAK  
GORRENTZAKO APARAILUAK

Kale Nagusia, 28 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA  
TOLOSA-DONOSTIA


**BENITO**

**HARATEGIA  
URDAITEGIA**

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49  
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

**BILLABONA**





## Ireki dute liburutegia

**LARRAUL**

Joan den larunbatean ireki zituen Larraulgo liburutegiak bere ateak Udaletxe azpian dagoen aretoan. Nerea Ugalde gaztea izango da bertako lanetaz eta liburuzaleei harrera egiteaz arduratuko dena.

Liburutegian aspaldi pilotzen hasiak ziren Eusko Jaurlaritza eta Diputaziotik bidalitako liburu multzo handi a. Bestalde, areto ezin hobea eskaini du Udalak larrauldarrek liburutegiaz goza dezaten. Egitasmo hau aurrera ateratzeko Nerea Ugalde larrauldarra aukeratu dute zinegotziek.

Liburutegiko ateak ireki aurretik bera izan da liburuak sailkatu eta apaletan egokitzeaz arduratu dena, eta aurrerantzean ere Nerea izango da lan hori burutuko duena.

Liburutegia larrauldar gazteenentzat propio antolatu ez bada ere, gehien erabiliko dutenak beraiek izango direla pentsatzen dute zinegotziek. Izan ere, larunbat



Nerea Ugalde liburuzain berria

eguerdian beraiantzat irekiko da eta etxeko-lanak egiteko edota irakurtzeko aukera izateaz gain jolas egiteko eta elkarren artean harremanak izateko aukera ere izango dute, «gainera», dio Antton Amunarriz alkateak, «Larraulgo haur guztiak ez dira eskola berberera joaten, eta liburutegia elkarren berri,

orain baino gehiago izateko era egokia izan daiteke».

Honez gain Larraulen hamar-hamabi neska-mutil gaztetxoak zorionekoak ere badirela esan behar da, ez baita arrunta horrenbeste liburu eta hain toki aproposaz dozena bat lagunek bakarrik baliatu ahal izatea.

Larraulen liburutegia izatea ez da gauza berria, garai batean ere Udaletxe zaharrea ba omen zegoen, baina berria egokitu zenetik

bertan behera utzi zen. Orain zerbitzu berri honek herriarentzat izan dezakeen garrantzia ikusita, Udalak gogo handiz ekin dio egitasmoari eta larrauldarren artean zer nolako harrera izango duen denborak esango badu ere, ziur aski, asko izango dira jakinminez bertara hurbilduko direnak.

**fotocolor**  
ERREBELATUA ORDU JEAN

Ezkontza, Jaunartze, e.a.en erreportaiak  
Lan Industrialak



José Ignacio Unanue  
Juan Bta. Erro, 1 - ☎ 59 43 32  
ANDOAIN

**HERRI OSTATUA**  
TABERNA  
JATETXEA  
LARRAULGO PLAZA  
☎ 69 18 55

**ASTIGARRAGA**

Bainu gelak Linterneria  
Kristoldegia Berogailuak

ERAKUSKETA: Kale Txiki, 11 - ☎ 59 08 61  
ANDOAIN

# Herriz herri

## Maiatza saltsan

Aurtengo maiatzean kultur zaporedun saltsa barreiatu nahi da Zizurkilen. Saltsa honen prestatze lanetan herriko talde desberdinek ihardun dute. Besteak beste, Kostata gazte asanblada, Danena kirol elkarte, Urkamendi elkarte, eta Pedro Maria Otaño eta Urkamendi (Eskola txikia) guraso elkarteak. Sortzaile kultur elkarteak ere aritu da lanean.


Dudarik gabe, herritarren partehartze zabal honekin jadanik saltsa pil-pilean jartzea lortu da. "Maiatza saltsan" izenburuarekin hilabete honetan garatuko diren kultur ekintzen aniztasuna adierazi nahi izan da. Herriko kultura eta kultur espresio berriak lapiko berera jaurtikiko dira.

### Egitaraua

- Maiatzak 1:** ANDATZA EGUNA. Mendi irteera.  
**Maiatzak 3:** Diapositibak, "Andeak: Ekuador eta Bolivia".  
**Maiatzak 6:** Kafe teatroa jubilatuen tabernan, 10.30etan.  
**Maiatzak 8:** Herri Urratsera autobusa antolatuko da.  
**Maiatzak 13:** Kirolari buruzko mahai ingurua.  
**Maiatzak 14:** Bertsolari gazteen jaialdia.  
**Maiatzak 15:** San Isidro eguna goialdean. Idi probak, bertsolariak, korrika apustuak.  
**Maiatzak 17:** Kultur Etxeko gazte antzerki tailerren antzeslana.  
**Maiatzak 18:** Pello Añorga ipuin kontalaria.  
**Maiatzak 20:** Bera Bidasoako antzerki tailerren antzeslana.  
**Maiatzak 21:** Mus txapelketa azkarra Urkamendi elkartearen.  
**Maiatzak 26:** Egungo euskal musikari buruzko mahaingurua musikari ezagunez osatua.  
**Maiatzak 23-27:** IV. haur antzerki astea.  
**Maiatzak 27:** Goaz" antzerki taldearekin "Pernando bizirik hago oraindik" antzeslana.  
**Maiatzak 28:** Kontzertua: Baldin Bada eta Tapia eta Leturia bere taldearekin.  
**Maiatzak 6, 11, 20 eta 25ean** sexualitateari buruzko hitzaldiak.

Maider Barandiaran

**OHARRA:** Maiatzak 14ean Iriarte etxea inaguratuko da Zizurkil goikoan. Aita Zabalak Pedro Maria Otaño bertsolariari buruz idatziriko liburuaren aurkezpena egingo du eta bertsolari ezagunaren irudi berri-tua jarriko dute enparantzan.



Patxi Otegi zizurkildarrak eman digu ezagutzera sutan dauden jaki goxo hauek marrazki honetan.




## -ASTEASU eta LARRAUL-

Brusselako kontuak urruti samar geratzen zaizkigu bizitza herrian egitera ohituak gaudenontzat. Europako Batasunak hartzen dituen erabakiei gutxitan egiten diegu jaramonik. Baina oraingo honetan egin beharko, Asteasu eta Larraulek bertatik zakukada bat milioi jasotzeko aukera daukate eta.

# Zakukada bat milioi

Larraul eta Asteasu 5-B helburuko zonaldean sartu ditu  
Europako Batasunak.





Agintarien artean eta komunikabideek 5-B helburuaz hitz egiterakoan zertaz ari ziren inork gutxi zekien orain artean. Hemendik aurrera ordea, ezagunagoa egingo zaigu, dudarik ez. 5-B helburuko zonaldeak Europako Batasunak nekazal inguru zenbaiti ematen dion izena da, hauek euren garapenerako dirulaguntza komunitarioak jaso ditzaten.

## Biztanlegoa jaitsi izana, nekazal errenta gutxitzea eta langabezia igotzea dira baldintzak

Joan den urtarrilaren 25ean, 1995 eta 1999 urte bitarteko 5-B helburuko zonaldeak izendatu ziren Europako Batasunaren aginduz. Eusko Gobernuak inguru dexente proposatu zituen horretarako, baina Gipuzkoatik Tolosaldea-Urola Kosta inguruak bakarrik betetzen zituen

Bruselako agintariek jarritako baldintzak: azken urteotan biztanle kopuruak behera egin izana, nekazal errentaren gutxitzea eta langabezia maila altua izatea, besteak beste.

Tolosaldea-Urola Kostako bederatzita herriek osatutako eskualdea izendatu dute 5-B helburuko zonaldea: Gipuzkoan barrualdera Tolosatik Azpeitira bidean, Albiztur, Beizama, Bidegoien eta Errezil; kostaldera Aia, eta bien artean Ernialde, Larraul eta Asteasu.

### Egitasmoak prest

Azken bi herrialde hauetan prestatu dituzte dagoeneko Europatik jaso ahal izango duten dirutza zertan erabiliko duten zehazten duten egitasmoak. Ez dira 5-B helburuko gune izendatu ondoren preziso eratutako planak, baina primeran etorriko dira aurretik eginda zuten programaketa bete ahal izateko. Izan ere, hauteskunderen ondoren egindako lau urtetako programa aurrera eramatea ahalbidetuko baitu laguntza honek. Gehienetan gertatu ohi da makina bat asmo on bai, baina horiek betetzeko modurik ez izatea. Bada, laguntza honen bidez, dirurik ez zegoela eta kajoian gordeta zeuden

egitasmoei hautsa kendu eta berauek burutzeko bideak jarri ahal izango dira, eta bide batez, lehendik abian zeuden ekimenak zabaldu.

Asteasuk 780 milioi aurrikusi ditu bere egitasmoak aurrera atera ahal izateko. Herria txikiagoa eta beharrak ere mugatuagoak izaki, Larraulgo Udalak egitasmo xumeagoa aurkeztu du Gipuzkoako Diputazioaren aurrean, 227 milioitako aurrekontua, alegia.

### Diputazioarekin harreman eskasak

Orain Gipuzkoako Diputazioari dagokio plan horiek onartzen dituen edo ez esatea, berari baitagokio berriz ere Bruselarako bidea hartuko duen egitasmo operatiboa zehaztea. Baina puntu honetan kexu agertu dira Larraul eta Asteasuko Udalak. Ilunak izan dira probintziako agintariek izan dituzten harremanak. Ilunak eta eskasak. Diru gehiago lortuko dutelakoan edo, 5-B helburuko zonaldekoak izendatu dituzten herriak bakarka jo dute Diputaziora, eta Larraulen eta Asteasun agertu digutenez, batzuk erreztasun gehigo izan dute lan horretan.

## Asteasu

Hirigintza Birgaitze planak.....	100 milioi
Etxebizitza berriak eta urbanizazioa.....	50 milioi
Kirol ekipamendua.....	200 milioi
Nekazal azpiegitura.....	200 milioi
Kultur ekipamendua.....	60 milioi
Ur hornidura.....	60 milioi
Sozial ekipamendua.....	60 milioi
Turismo ekipamendua.....	50 milioi

## Larraul

Azpiegitura orokorrak.....	81 milioi
Nekazal azpiegitura.....	40 milioi
Sozial ekipamendua.....	26 milioi
Larraulgo bariantea eta argi-indar berri.....	80 milioi

**Aspaldiko proiektuak martxan jarri nahian Asteasu eta Larraulgo Udalek Diputazioan honako egitasmo eta beraiei dagozkien kostuak aurkeztu dituzte. Diputazioak onartu ondoren Bruselara bidaliko dituzte, Europako agintarien onespena jaso dezaten.**

## Asteasu eta Larraul kexu dira Diputazioarekin

Erreportai hau idazteko orduan, ez Larraulen ez Asteasun ez zekiten Diputazioak euren egitasmoak onartu zituen edo ez. Ez dute harreman zuzen-zuzenik izan herri

bakoitzeko ordezkariekin. Bilera batzuk izan dira, baina herriotako ordezkariak bakarka eta Diputazioak aurrez aurre ez dira oraindik eseri eurak aurkeztutako egitasmoak programa operatibo horietan sartuko dituzten edo ez jakiteko.

Eta programa operatibo horiexek dira Bruselan aurkeztu behar direnak. Ekainerako emango die Europako Batasunak baiezkoa edo ezezkoa. Programak onartu ondoren, Bruselak dirulaguntzaren %40a au-

rerratuko du gutxi gorabehera. Gero ikusi egin behar laguntza horie nola banatzen diren, eta proiektuak finantziatzeko beharrezkoa den gainerantzeko dirua nori jarriko duen.

Oraindik ez dago zehazterik Asteasu eta Larraulek zehatz zenbat diru jasoko duten. Gipuzkoari Euskal Autonomi Elkarteari dagokion %18a banatuko zaiola besterik ez dakigu, eta horrek 754 milioi osatzen ditu datozen sei urtetan Gipuzkoa osorako banatzeko.

**Jone Larrañaga**

**Azkenengo urteetan nekazal errenta jaitsi egin da**



**-ZIZURKIL-**

## El Salvadorreko hauteskundeetan begirale

Mikel Arrastoa eta Juanjo Aranburu alkate eta zingotziarekin solasean

Zizurkilgo Udaleko bi ordezkari, Mikel Arrastoa, alkatea eta Juanjo Aranburu, zinegotzia, etorri berriak dira El Salvadorretik. Bi helburu betetzeko asmoz egon dira hamabost egunez El Salvadorren; batetik, begirale modura aritu dira egin berriak diren hauteskundeetan eta bestalde, ofizialki anaitu dira El Salvadorreko ekialdean dagoen Segundo Monteseko Meangera herriarekin.

- Nola sortu zaizue El Salvadorrerako joateko ideia?

- Euskal Fondoaren bidez joan gara. Nikaragua, Ekuador edo El Salvadorrerako joateko aukera eskaini ziguten eta guk azken hau bisitatzea erabaki genuen. Izan ere, Zizurkilgo herriak aurrekontuetatik %0,07a elkarlaguntzarako emateko konpromezua hartuta dauka. Hortik %0,04a Euskal Fondoari ematen zaio,

beste %0,03a berriz, anaitze hori aurrera eramateko eta proiektuak bultzatzeko erabiltzen dugu. Han dituzten beharrei erantzuteko kanpainak egin nahi ditugu hemen, jostailu bilketak edota kultura mailan. Anaitze honekin lortu nahi duguna elkartzunaren ideia herri mailan errotzea da.

### Adunak ere El Salvadorreko herri batekin anaitzeko asmoa dauka

- Nola ikusi duzue egunotan El Salvador?

- Bidaia honek bizi duten egoera gutxi ikusteko aukera aparta eman digu eta ikusi ahal izan duguna horixe da hain zuzen, laguntza behar dutela. Chalatenengo Departamen-



Mikel Arrastoa eta Juanjo Aranburu

tuko hainbat herri bisitatu ditugu, Las Vueltas esaterako; hau bezalako herriak lehen gerrillarien zonalde liberatuak ziren eta ejerzitoak gogor eraso ditu. *Politica de Tierra rasa* deituriko politika modua jarri du martxan lurrotan. Ejerzitoak kalte izugarriak eragin ditu, zuhaitz guztiak bonben eraginez erreta geratu dira.

- 1992an Cristianiren Gobernu eta FMLN, Askapen Nazionalerako Farabundo Martí Frontearen artean sinatu ziren akordio batzuk. Bertan lurra itzuli eta banatzeko asmoa ageri zen.

- Bai, baina hor dago koxka. Gobernuak ez ditu akordioak betetzen. Lurrarena da, dudarik gabe, arazorik handiena. Asentatu den jendeak lurra behar du bizitzeko baina lur sailak ez daude euren eskutetan, Gobernuak ez baitu bere hitza bete.

- Hamabi urte luzeko gerra honetan lurrak ezezik lantokiak ere galdu dituzte. Itxi diren fabrikak

200dik gora dira, zertatik bizi da jendea?

- Langabezia tasa altua da, hori dela eta, delinkuentzia areagotu egin da; honela, atrakoak noiznahi izaten dira, asko dira lapurretan ibiltzen direnak, San Salvador hiriburuan behintzat. Txabolismo izugarria dago, txaletez betetako urbanizazioetatik gertu. Kontrastez betetako hiria da. Herrietan beste era batera ikusten da miseria.

Oinutsik ibiltzen dira eta apenas dute jatekorik, baina izaera mundiala dute. Pixkanaka-pixkanaka ari dira aurrera egiten. Meangerako biztanlego zibilak Hondurasera joan behar izan zuen ejerzitoak behartuta. Bederatzi urte egin dituzte han, Honduraseko Ejerzitoak zerkatuta, euren herrialdera itzultzeko biderik gabe. Azkenean itzuli dira, 8.000 inguru. Behin Meangera herrian asentatu eta gero ACNURek emandako dirulaguntzei esker, fondo bat bildu eta horrekin banku komunal edo herri banku bat sortu dute, autofinantziatzeko.

- Dirulaguntzak beraz, Gobernutik kanpo datoz?

- Bai. Gobernutik ez da sosarik sartu Segundo Montesera. Dirua nazioarteko erakundeetatik, eta euren proiektuetatik dator. Finantziarioa, esan bezala, euren sortutako bankuetatik lortzen dute. Kontsumoari dagokionez, hainbat produktu komertzializatzen hasi dira, aurrutzak eta haragia,

esateko. PNC, Polizia Nazional Zibila, bake akordioen ondoren sortu den polizia berriaren uniformeak ere eurak ari dira egiten.

**- Hauteskunde kanpaina bertan pasatu duzue. Kanpaina lasaia izan dela esan al daiteke?**

- Ez da lasaia izan, egon dira enfrentamentuak; hala ere, uste baino lasaigoa izan da.

**- Zein da hauteskudeetako begirale baten eginkizuna?**

- Begirale lanetan jende asko aritu da, ASKAPENA-ren bitartez joandakoak esaterako. Gu berriz, *Asociación para la Paz y la Democraciak* gonbidatuta joan gara. Frauderik gerta ez zedin karnetizazioa kontrolatzea izan da gure zeregina, karnetizazioa ondo al zegoen konprobatu eta zentsoan agertzen ziren ala ez ikustea, alegia.

**- Eta egon al da frauderik?**

- Bai, fraude teknikoa egon da. Karneta zuen hurbildutako jende asko ez zen zentsoan agertzen. Bat baino gehiago geratu da, beraz, botua eman ahal izan gabe. Bigarren bueltan hori berriro gerta ez dadin nola konpondu aztertzen ari dira orain. Gainerantzean ez da fraude handirik egon.

**- Zer da hautatzen dutena eta nola da hautaketa prozesua?**

- Lehenengo bueltan hautatu dituzte Udalak, diputatuak eta presidentea. Presidente aukeratzeko gehiengo absolutoa behar dute ordea, hau da, erdia gehi bat eta lortu ez dutenez, hurrengo bueltan lehenengo doazen bi alderdiak aurkeztuko dira, alegia, ARENA eta COALICION DEMOCRATICA. ARENA hiru sektore daude: eskudronistak (*Escuadrones de la muerte*), militaristak (Ejertzitararen aldekoak) eta zibilistak (enpresariak,...). COALICION DEMOCRATICAn aldiz, Movimiento Nacional Revolucionario (sozialdemokratak) eta FMLN. Azken honetan bost alderdi daude.

**- Emaitzak iragartzera ausartuko al zinatekete?**

Gure ustez ARENAk irabaziko du,



Juanjok berak egindako argazki bat

baina ez alde handiz. Gure iritziz bauseak sozialdemokratiak eta demokrazia kristauak, FMLNren alde egingo du apostu, jendartean argi ikusten baita FMLN benetan demokrata dela eta bake bidea nahi duela. ARENA berriz, eskuin kriminala edo eskuin eskudronistekin asoziatzen du jendeak. Emaitza oso ezberdinak lortuko lirake Cristian berritako aurkeztuko balitz; izan ere, berak irudi hobea du, bera da akordioak kapitalizatu dituen gizona. Ez dauka ordea, berriro aurkeztetik, behin legealdeia bukatu eta gero, presidentek ez dauka berriro hautagai aurkeztetik. Udalak hautatu dituzte jadanik. Baina aipagarria iruditzen zaigu erabiltzen duten sistema; zerrendarik botatuenak Udaleko kargu guztiak hartzen ditu berekin, hau da, alkatea eta zinegotzi guztiak alderdi berekoak dira.

## Ikurriñak eta Frenteko banderak eskuetan zituztela

**- Izango duzue, noski, anekdota edo pasadizu aipagarririk.**

- Lehenengo egunean *tubo de escape* zintzilik eta gasolina galtzen zuen *carro* bat alokatu genuen. Harekin mugitzen ginen herri batetik bestera. Bestalde, moskitoen kontra borroka egiten ikasi dugu. Behin, hotelko ohean alakran bat topatu genuen, nahikoa lan eduki genuen zapatila eta bestelako "armekin" ohetik botatzen. Ezkontza batean ere izan ginen. Aipagarriena herriska horietako batean egin ziguten ongietorria da. Gure autoa herrira sartzen ari zen neurrian, umeak batak besteari deitu eta kotxetik irten ginerako 40 ume geneuzkan ongietorria ematen, beraiek margotutako ikurriñak eta frenteko banderak txoak eskuetan zituztela. Benetan hunkigarria izan zen. Euskal festa bat ere egin genuen; Negu Gorriak izan zen festa honetan eta jendeak izugarri ondo pasatu zuen.

**- Ba al daukazue El Salvadorrera berriro itzultzeko asmorik?**

- El Salvadorretik hona etortzera gonbidatu ditugu. Besazpian proiektu bat baino gehiago hartuta etorriko direlakoan gaude. Elkarren arteko harremana sendotzen jarraitu nahi dugu.

Idoia San Sebastian

## BILLABONA-ZIZURKIL


### ERLE-ERREGINAK HOBETZEN

Hobekuntza genetikoa ezti-ekoizleen mesedetan

Zizurkilgo Fraisoro Nekazal Eskolako erlategian duela lau urtez geroztik Javier Ganuza donostiarra ari da lanean. Orain dela urtebete Diputazioko beka bat jaso zuen eginkizun zehatz batekin: erle-erreginen hobekuntza genetikoa. Helburua beraien produkzioa gehitzea eta Gipuzkoako erlezainei gero eta erle-erregina hobeagoak eskaintzea da. Oiartzun eta Oñati inguruen ondoren Oriako ibai-arroan daude Gipuzkoako erlauntza gehienak. Billabonan, esate baterako, sei lagun ari dira une honetan zeregin honetan. Gehienak ez dira baserritarrak, afizioz erlezaintzari ekin dioten kaletarrak baizik, hala ere Indianexa inguruko Etxaburuko Joxe Ramon Mendiluze bezalako gazteak afizioz hasi baziren ere, gaur egun ezti-salmenta baserriaren beste osagarri bat bilakatu dute eta aurrerantzean, antza, produkzioa gehitu eta lanari etekin handiagoa ateratzeko asmotan dabilta.



Hobekuntza genetikoa erlezainen beharretara egokitu nahi izan da, hau da, zenbat eta erregina hobeagoak orduan eta ezti gehiago eta salmenta handiagoak. Hala ere, eta Javierrek dionez, Euskal Herrian eztingintza ez da inoiz baserrietako ekoizpen-biderik nagusia izan, "gaur egun ere ez zait iruditzen nahikoa merkaturik dagoenik Gipuzkoan zenbait baserritar eztingintzatik bakarrik bizi ahal izateko" dio Javierrek, Bizkaia eta Gipuzkoan batz besteko ekoizpena hamar kilotakoa da erlauntza eta urteko, "beti ere eguraldiaren gorabeherak kontuan hartuta" azpimarratu digu. Hala ere, duela gutxi Euskal Herriko eztiari Label izaera eman izanak bestelako garrantzia ere eman dio eztingintzari.



AGUSTIN LEITZA 3 eta 5



Erle-erreginen hobekuntzari ekiteko Gipuzkoako hamalau erle-erreginarik onenak eskuratu ditu Javierrek eta hauek bitan banatu: batzuk erle-mandoak egiteko erabiltzen ditu, beste batzuk berriz, erle-erreginak sortzeko. Ernalketa artifiziala erabili du hauek elkartzeko eta ondoren sortutako erleak Altzaga eta Aiako erlategi batzuetara eramanez ditu. Han era naturalean ernaldu ondoren aurrekoak baino erle-erregina hobeak sortzea da Javierren asmoa.

eginda eta beraiei salduko zaizkie azken finean erle-erregina hobeagoak: 1.600 pezeta balio du erregina ernalduak, 800 elkarte kideentzat eta 400 pezeta erregina ernaldugabeak, 200 elkarte partaideentzat.



Javierrek egunero aztertzen ditu erlauntzak

## Hautaketa naturala da irizpidea

“Nik naturak berak egiten duena baino ez dut egiten, baina askoz ere azkarrago, hau da, hautaketa naturala da irizpidea ahulenak hiltzeko eta indartsuenak bizirik irauteko. Naturak hil beharrean, nik eragiten diet heriotza gaisotasun, eguraldi txar eta ingurugiro aldaketan bitartez” kontatzen digu Javierrek berak egiten duen manipulazio genetikoarekin zerikusirik ez duela garbi azaldu ondoren. Erlezainen interesez dago hau

## Gipuzkoako Erlezainen Elkarte

Gipuzkoako Erlezainen Elkarte Zizurkilen bertan dago, Fraisoro inguruan. Une honetan 450 bazkide inguru biltzen ditu eta hauek, oro har, 3.500 erlauntza dauzkate. Javierrek dioenez bi izan dira batez ere azkenengo urteotan Elkarteak egin dituen lanik garrantzitsuenak: bate-tik, “barroasis” deituriko gaisotasunaren berri eman erlezainen artean eta erleak bizirik iraunarazteko bitartekoak eskaini. Gainerakoan erleak hil egingo lirarteke, 1986. urtean baserrietako erlauntza gehienetan gertatu zen bezala. Eta bestetik, orain dela bost edo sei urte erlezainek ordura arte enborretan eduki ohi zituzten erlauntzak gaur egungo kaxetan egokiarazteko bitartekoak eskaini zituen Elkarteak.

## Eztia egiten

Joxe Ramon Mendiluzek erakutsi dizkigu Euskal Herriko ezti-mota ezberdinak: arkazia-eztia da Gipuzkoan gehien zabaldua dagoena, udaberri inguruan biltzen da; Ondoren ezagunena mila-lora ezti da, hau uztaile inguruan biltzen da. Eta hain ugariak izan ezean ere, gaztain-eztia, txilar-eztia eta lahar-eztia ere biltzen dira. Urtean bilketa bat egitea omen da ohizkoena, iraila aldean, erlauntza bete-beteta dagoenean, orduan 60.000 erle inguru egon omen daitezke. Garaia iritsita, erlezainak erleari abaraskan soberan daukan ezti kentzen dio. Ondoren ontzi handi batean sartu, zentrifugatu eta inertziariz irtetzen da ezti erleek argizariz zigilatutako habietatik.

## SAHATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA  
KONTSULTA NATURISTA

Txermin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA



ZIENTZIEN  
AKADEMIA 51

Matematika, fisika eta kimika  
MAILA GUZTIAK  
Goizez eta arratsaldez

Kale Nagusia, 51 - ☎ 59 33 79 ANDOAIN

## ANTZOLA, S.A.

Aroztegia

AROZTEGI MEKANIKOA  
ETXEBIZITZETARAKO BEREZIKI

ELBARRENA AUZOA - ☎ 69 23 46 - ADUNA

ATE TRINKO ETA BLINDATUAK  
BARRUKO ATEAK  
LURRAK  
NEURRIRA EGINDAKO ESKAILERAK  
MOTA GUZTITAKO ARMAIRUAK

POSTA KUTXATILA, 126 - ANDOAIN



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA  
ZABALAGA TAILERRAK

Amia Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia  
Telefonoa 30 01 69 ANDOAIN

## -ERNIO BEHEA-

Inoiz, aiton-amonek kontatu dizkigute gure herrian gertaturikoak, mendietan, ibarretan barrena bizi izan diren istorio bitxiak. Ahoz aho heldu zaizkigu beste asko, herri hauetan hazi eta hezi diren pertsonaia xeble askoren eskutik. Baina beste asko, herri hauetako txokoren batean daude, gure memorian egoteko irrikaz. Oraingo honetan aukerarik izango dugu, hementxe bertan paraje hauetan, garai ezberdinetan gertatutakoen berri izateko.

# Artxibategiak eskura

Maiatzatik aurrera izango dute herritarrek artxiboak miatzeko aukera

Gutako askok, ziurrenik, munduko edozein gertarari buruz zertxobait esan dezakegu. Egondako gerrate, gertakizun garrantzitsu, erresuma edo herrien arteko itunak entzunda izango ditugu. Baina gure inguruan gertatutakoei buruz ba ote dakigu ezer? Ba ote dugu gure zuzeneko arbasoei gertatutakoaren berri? Urrutirago joan gabe, gure herrian bertan, historia aberatsaren jabe gara, baina salbuespenak salbu, gchiengoak ez du berau ezagutzen. Harelere, erremedio erreza du horrek, hemendik aurrera horretarako bideak irekiko zaizkigula kontuan hartzen badugu gainera.

**Gure  
herrietako  
historia eman  
nahi da  
ezagutzera**

Orain arte, maiz, Udaletxera informazio administratibo edo historikoaren bila jo dugunean, oztupoak nonnahi topatu digutu, eta behar-beharrezko, derrigorrezko informazioa ez bazen, nahiago izan dugu ezjakintasunean jarraitu, informazioa eskuratzea gehienetan zaila izaten baita. Zenbait dokumentu, bestalde, desordenaturik egotean, existitzen zirenik ere ez dugu jakin. Pilaturik egoten dira hor nonbait,



Zizurkigo artxibategia

# OINETAROKAR

SANTA KRUTZETAN?  
ZAPATAK PUSKATU ARTE DANTZAN

**MODESTA ARANBURU**

Berria kalca, 28 - ☎ 59 03 07  
**ANDOAIN**

# Illunja



☎ 69 18 18

**ZIZURKIL**

eta zenbaitek galtzeko arriskua ere badauka. Artxibo ordenatu bat, beraz, ezinbestekoa izan ohi da hori gerta ez dadin. Hain zuzen ere, hori da Aduna, Asteasu, Billa-bona, Larraul eta Zizurkilen maiatzatik aurrera izango duguna: idatzi guztiak gordetik, ordenaturik eta sailkatutik izango dituen artxibategia.



Billabonako Udal liburutegia

izango da: alegia, artxibategiak herritarrei ezagutzera ematea, hau da, gure herrietako historia eta kulturaren berri izan dezagun bidea jar-tzea.

Proiektu hau Euskal Herrian aurrera eramango den lehena da, baina jadanik beste zenbait herrik jakinharia adierazi dute gai honen inguruan, interesgarria baita, erabat.

## Batetik, artxibo administratiboa, eta bestetik, historiakoa.

### Antolaketa berria

Artxiboak egon badaude, baina hauen funtzionamendua eta edukia nahiko kaskarra izan dira orain arte. Herri hauetako Udaletxeak beraz, bat etorri dira gai honi dagokionean, zerbait egin zitekeela esateko garaian. Beraz, herri hauek elkartu eta Eusko Jaurlaritzan proiektu bat aurkeztu zuten. Bi atal edukiko dituen

artxiboa izanik, artxibo administratiboa alde batetik, historikoa bestetik, udaletxeetako lana eta artxibatze sistema egokitu beharko da, herritarrek edozein dokumentu eskura izan dezan. Koordinatze honek administrazio lanaren egokitzea dakar, dudarik gabe, Udaletxe horietako funtzionamendua eraldatu eta berdinduz. Jaurlaritzari ideia ona iruditu eta aurrera eramatea pentsatu du. Lan honetarako, hain zuzen ere, pertsona bat kontratatu dute.

### Bost herrien arteko koordinazioa

Pertsona honen lana bost herrietako artxiboetan buru-belarri murgiltzea izango da: dokumentuak bildu, aztertu, sailkatu eta artxibatu. Era berean, pertsona honen beste zeregin garrantzitsu bat beste honako hau

## Europar ohizkoak dira artxibategi hauek

Proiektua berria izanik, beldurrik egon, badago. Europako zenbait herritan horrelako artxibategiak badauzkate ia eta, eguneroko jardunak adierazten duenez, horixe da lan egiteko erarik egokiena.

Herritarrentzat aukera paregabea izan daiteke, gure herrietako istorio bitxiak eta historia ezagutzeko. Beraz, maiatzatik aurrera, eta, zure herrian bertan, izango duzu artxibategia miatzeko aukera.

Amagoia Mujia

**Aduna**  
**Altzariak**

Altzarien erakusketa,  
fabrikazioa eta salmenta



CIRCULO  
MOBILIARIO

Elbarrena auzoa, z/g  
☎ 69 15 62 - 66 -Faxa 69 34 66  
ANDOAIN



Kale Berria, 56 - ☎ 69 01 91 - BILLABONA

**-ANDOAIN-**

## Joxe Mari, adiorik ez

Joxe Mari Iturzaeta palista bikain zendu berriari omenaldi hunkigarria eskaini zion Andoain herriak joan zen apirilaren 10ean. Pilotari handia bezain gizabidetsua, orain bi hilabete eskas hil zen gaitz latz batek jota. 29 urte besterik ez zuen arren, pala munduko izarra zen, eta pilotan gailurra egin ondoren joan zitzaigun otsailaren 16ean.

Andoaingo herritarrek bat egin zuten joan den apirilaren 10ean Joxe Mari Iturzaetari eginiko omenaldia-ekin. Klub Arteko Euskal Ligako nahiz Sanchez-Torre eta Iriondo-Otero palista profesionalen arteko partiduak jokatu ziren omenaldiaren barne.

Baina ekitaldirik hunkigarriena Sorabillako pilotariaren omenezko plaka oroigarria bere jaiotzeko horman agerian geratu zenekoa izan zen. Egurdiko 12.00ak puntu-puntu, palista bikainaren omenezko agurra dantzatu zuen herriko Urki Dantza taldeko neska-mutiko bikote batek. Aurreskuaren ostean, plaka oroigarria estaltzen zuen zapia bildu zuen Marisolek, Iturzaeta zenaren emazteak, eta ondoren, pilotari handia goraipatu zuen Xabier Huizi, Udaleko zinegotziak eta omenaldiaren antolaketaz arduratzeko Udalak sortutako batzordeko kideak.

**Giro polita sortu  
zen pilota  
partiduetan**



Joxe Mariren jaiotzeko horman plaka bat ezarri dute

Goizeko 10.00etan ekin zitzaien Klub Arteko finalei, eta honenbestez, kadete mailako xistera partidua jokatu zen lehenik. Donibane Lohizuneko (Lapurdi) Goizeko Izarra taldeko Cavier-Bidart nahiz Gastetizko Jai Alaiko Beiga-Alain bikoteak aritu ziren norgehiagoka, eta lehen bikoteak eskuratu zuen garaipena 30-21eko emaitzarekin.

Jubenil mailako xisteraren txanda heldu zen gero. Berriatuako (Bizkaia) Bereikuak eta Bilbao II.ak, Markinako (Bizkaia) Alex eta Gari-

tagoitiaren aurka jokatu zuten, 30-26 irabazi zutelarik azken hauek. Junior mailako xisteran ere bi herriotako ordezkariak aritu ziren norgehiagoka: Olate I eta Aldazabal Berriatuatik, eta Javi nahiz Pradera Markinatik. Hemen ere berriatuatarrek irabazi zuten, 35-20.

Senior mailako erremontean, bestalde, Real Sociedadeko Zeberio-Larrañaga eta Illunpeko Aizpurua-Etxeberria bikoteak aritu ziren; eta bigarrenak izan ziren garaileak 40-33 emaitzarekin. Goizeko partiduok

**HERCULES**  
*Aseguruak ARGENTARIA*  
*Amaita Kortajarena*  
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34  
ZIZURKIL

**MILIKOST**  
**LIBURUDENDA - PAPERDENDA**  
KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57 - ANDOAIN

ikustera jende ugari hurreratu zen Arrate pilotalekura. Arratsaldeko saioa, berriz, 16.30ak jota hasi zen, Berriatuako Arriaga-Osa eta Miarritzeko (Lapurdi) Ihitsague-Etxeberri bikoteen arteko xistera partiduekin, eta bikote bizkaitarrak eraman zuen txapela 35 eta 25 emaitzari esker.

Hori amaitu bezain pronto, Agirre eta Ormaetxea bizkaitarren nahiz Ruegas eta Calderon gipuzkoarren arteko pala partida jokatu zen. Garaipena bikote bizkaitarrak eskuratu zuen 40-33 emaitzarekin. Sanchez-Torre eta Iriondo-Otero palista profesionalen arteko partida ikusgarria, bestalde, bigarren bikotearen garaipenarekin amaitu zen. 40-33 izan zen emaitza.

Partiduak amaitu ondoren, hainbat plaka oroigarri banatu zitzaizen Iturzaeta-aren senitartekoei.

## Ereindako haziak fruitua eman dezala

“Etxe hontan jaio zan hamarkada hontako pelotari onena” irakur daiteke Sorabillako Elizondo etxean itsatsita dagoen plakan. Hala da, azken hamarkadan sortu den palis-

tarik hoberena zen Joxe Mari Iturzaeta; eta orain, berak ereindako haziak loratu cgin behar du, etorkizun hurbilean Andoain herriak pilotari handi gehiago eman ditzan.

Joxe Mari Iturzaeta joan zaigu, baina beste Joxe Mari mordoia sortuko diren esperantza ez da galdu behar. Betira arte Joxe Mari, adiorik inoiz ez.

Agurtzane Ormaetxea



Arrate pilotalekua bete egin zen

 **EROSO, S.L.**


Gas eta Berogailu Instalakuntzak  
Gas Naturala, Propanoa eta Hirikoa

**ZURE NEURRIKO AURREKONTUA  
EGINGO DIZUGU**

DEI ONDOKO TELEFONO HAUETARA:

DONOSTIAKO BULEGO NAGUSIA: ☎ 39-11-05

IRUN-HONDARRIBIAKO ORDEZKARITZA: ☎ 62-18-64



# Zaharrak


-ZIZURKIL-

## FRAISORO LARRIALDI ETA HARTZE ZENTRUA

Urteak joan dira 1903an inaguratu zen urte hartatik eta bertatik pasa diren haurrak ez dira gutxiago. Urteak konta daitezke, baita bertatik zenbat haur igaro diren ere, edota gastuak, baina nola neurtu mojek egin duten haurrekiko sakrifizioa?

Eredu gisa hor dugu Sor Pilar Pano Castarlinas, 55 urte egin zituen mundu honetan eta horietatik 35 haurrei eskainitako borondatezko lanean emanak. Gaur egun komunitate bereko "San Vicente de Paul"eko alabek jarraitzen dute eginkizun berean.

Hasiera gogorra izan zen garbitasun eta osasun-bitartekoak ez ziztuztenean eta hildakoen kopurua altua zenean. Konpondu zuten arazo larri hori eta metodo eta zerbitzu berriak ezarri ondoren nabarmen beherantz egin zuen hildakoen kopuruak: 1908an laurogei haur hil ziren, 1909an berriz, berrogeita bat. Inoiz baino hobeto esan daiteke: "Zorionekoa ongi gastatutako dirua!".



Garai bateko maternitatea

Borondatezko lanak asko egingen badu ere, gehienetan ez da nahikoa izaten eta Gipuzkoako Foru Aldundia egon ez balitz, nekez irango zukeen harrera-etxeak. Sortu zenetik helburu bakarra izan du Fraisoroko Haur-Etxeak: kaxako edo haur espisitoei laguntza eskaintzea. Lehenenik hartu, ondoren hazi eta gero heziz,

aurrean berehala izango duten bizi-modu gogorraren aurrean hobeto defendatzen jakin dezaten.

Amaren bularreko esnearen beharra zegoen garai hartan eta horren faltan amaordezkoarena ematen zitzairen. Emakume baserritar frankok bete du lan hori. Denborarekin haur txikiak semeordezkotzat hartzen zi-

Izango duzu, ziur, ezagutzera ematea merezi duen aintzinako argazki edo erretraturen bat. Argazkiarekin batera bidaliezaguzu azalpen txiki bat idatziz.



Dietetika  
eta Belardenda

**ZAINBERRI**

Naturopataren kontsulta  
Iridologia  
Masajea  
Estetika

Akupuntura  
Ile tratamenduak  
Pisu terapiak

Pablo Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86  
Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99

**TOLOSA  
ANDOAIN**



**MENDI**  
AUTOESKOLA

AGUSTIN DE LEITZA, 11 - ☎ 300604  
20140 ANDOAIN

**MIRARI**  
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2  
☎ 590162 ANDOAIN

tuzten baserrietan. Euren jatorrizko amak ezagututa, zenbait zailtasun izan ohi ziren, amordezkoei haurra kentzen zietenan esate baterako.

1926-27. urteetan ABC egunkarian honako hau irakur zitekeen: "Inklusak itxi egin behar dira, horrela jarraitzen badute haur-hilerriak izango baitira". Beste aldizkari batek ordea, LA VOZ MEDICA delakoak alegia, guztiz bestelakoa zioen 1927an, Espainiako hoberena eta munduko hoberenatarikotzat hartzen zuen Fraisoroko zentrua.

1926ean bertaratutako 164 haurretatik lau bakarrik hil ziren. Fraisoroko Zentruan haurrak pilatzen hasi zirenean, euren amek edo amordezkoek hartzen ez zituzten kaxako haurrak zazpi urte bete eta gero Tolosako "Benefizentzia Etxera" eramaten zituzten hezkuntza hobea izan zezaten eta aurrerantzean bizimodua euren kabuz egin zezaten. Gehienek baserrietara eramaten zituzten, eta koskortutakoan baserritarrak soldata bat eman ohi zien. Ezindu fisiko edo beste arrazoirik medio lana egiteko gai ez zirenak, zentru honetan edo bere egoerari hobeto erantzungo zion zentruen batera sartzen zituzten.

1931an Diputazioak bi peze-



**Kaxako hiru haur**

tako dirulaguntza ematea erabaki zuen ezkongai zen eta haur bat zuen amari kaxako haurrari bular-esnea eman eta haztearen truke haurrak bi urte bete edo bera ezkondu bitartean, haurrak bi urte bete baino lehen ezkontzen bazen. Aurrerago arautegiak zenbait aldaketa izango ditu.

Sarritan esan ohi dugu kanpokoia beti hobea dela. Hori egia ez dela frogatzeko ikusi besterik ez dago ondorengo datu hau: 1926ean 163 haurretatik lau bakarrik hil ziren eta marka hau inork gutxik hautsi zezakeen garai hartan, naziorik aurreratuenak barne. 1933an haurren ama gehienak gipuzkoarrak ziren, hala eta guztiz ere onartzen zituzten beste zenbait probintzietakoak ere.

1936ean, gerra dela medio, nabarmen jaitsi zen haurren kopurua, lehen ehundik gora baldin baziren, handik aurrera nekez helduko dira laurogeira.

Egunetik egunera kontzientzia handiagoa dago. Orain haurrek harrera-familietan hartzen dituzte, ondoren beren gurasoekin itzultzeko. Haurra ertzainek edota udaltzainek jaso ondoren Diputazioaren esku geratzen da, eta ondoren zer komeni zaion ikusten da, kasuari irtenbideren bat eman asmoz zentruan be-

ren egonaldia ahalik eta laburrena izan dadin.

Europa guztitik etortzen dira haurrak Fraisorora eta zazpi urte bitartekoak hartzen dituzte. Zentruan zazpi mojek eta zazpi langilek egiten dute lan buru-belarri. Laster Donostiako Berio auzora joatekoak dira. Auzo horretako zentru berri horrek haurrak hobeto hezitzeko zerbitzu hobek eskaintzen baititu. Beraz, laurogeita hamaika urte bete ondoren Donostia aldera abiatzekoak dira aurki. Diputazioak asmo berriak omen ditu eta baliteke aurrerantzean Fraisoron ezintasunak dituztenen haurrak hartzea. Bitartean gure zortetik onena opa diogu etapa berri horretan.

**Joxe Agustín Otegi**

**LOATZO ASEGUURUAK - ASESORIA**



**ZURE ETORKIZUNA  
BIZI ASEGUURUA**

**JOXERRA GARMENDIA MUJICA  
MARI JOSE GOENAGA URIARTE**

Laskorain kalea, 16 - ☎ 65 18 78 - TOLOSA  
Antxin kalea, 3 behe - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA



**INCARGI**

**KALITATEKO URDAIAZPIKOA**

**Joxe Ramon Jauregi Tapia**

Gudarien Etorbidea, zenb. g. - 8. Industri Poligonoa  
Telefonia 30 02 34 - Faxe 30 01 87  
ANDOAIN



**XIXORI**

**BELARDENDA**

**DIETETIKA ZENTRUA  
KONTSULTA NATURISTA**

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN



**TXERRIKIEN  
BANATZAILE  
ETA EKOIZLEA**

**ENPRESEN ZENTRUA**

Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN

-ANDOAIN-

## Musikaren bidez historian atzera eginez

Junkal Guerrero andoaindarra pianoa ezagutu ondoren klabezina ari da ikasten



30

Pianoa ikasten hasi zen txikitik eta pianoaz jakin beharreko guztiak ikasi ondoren, beste instrumentu bat ezagutzea bururatu zitzaion. Lau urte badira klabezina ikasten hasi zela, eta klabezinarekin topo egin zuenetik, musikaz zuen ikuspegia aldatu egin du. Klabezinaren bidez orain arte ezagutzen ez zituen autore eta estiloak deskubritu ahal izan ditu. Junkal Guerrero da bera, andoaindarra, musikaria, piano irakaslea, Alberto Agirre koruko zuzendaria izana, eta orain klabezin jolea.

Klabezinaren nota bakar batzuk entzutea nahikoa da historian atzera egiteko, bere musikaren bidez denboraren makinan sartu zarela dirudi. Musikaz tutik ez dakien pertsonak ere, berehala somatzen du klabezinaren musika beste garai batekoa dela, baina horrek ez du esan nahi aspaldiko mendeetako musikak gaur egun zentzurik ez duenik. "Gaur egungo musika ezin da ulertu garai hartakoa ezagutu gabe" esan digu Junkal Guerrerok.

### Beste autore batzuk ezagutu

Piano karrera bukatu ondoren hasi zen Junkal klabezina ezagutzen. Klabezina jotzen hasi zentrik bereztat ezezagunak ziren musika estilo eta autoreak deskubritzeko aukera

izan du. "Musikaz nuen planteamendua aldatzeko aukera eman dit instrumentu honek. Piano ikasketak egin nituenean, beti autore berberak jotzen nituen: Bach, Shubert, Brahms eta horrelakoak. Pianorako musika azken mendeetakoa da, pianoa XVIII. mendean sortua delako. Baina klabezinaren bidez deskubritu dut musika ez dela hori bakarrik. Autore horiek eboluzioa izan dute, baina aurretik beste gauza batzuk ere badaude. Pianoa ikasten ari zaren bitartean, pianoaren aurretik beste autore batzuk izan direla jakin gabe ikasten duzu".

Izan ere, piano karreraren XIX. eta XX. mendeetako autoreen lanak jo izan ditu Junkalek. Pianoa azken mendeotan nagusi izan da baina pianorik ez zegoenean, klabezina eta tankerako

beste instrumentu batzuk ziren nagusi. "Klabezina hamabostgarren mendean sortu zuten Italian. Teklatua duen instrumentua da, kanpoan teklak eta barruan sokak ditu. Tekla zapaltzean soka ikutu egiten da, kitarran bezalaxe, eta pianoan aldiz, teklek jotzen dute soka".

---

## Musikaz nuen ikuspegia aldatzeko aukera

---

Klabezina, beste instrumentu batzuekin batera, pianoaren gurasoa da, klabezinaren eta beste instrumen-





**Santa Krutz elizan eskaini zuen Junkalek kontzertua**

tu batzuen eboluziotik sortu zen pianoa. Junkalek bi instrumentuak eza gutzen ditu, eta batetik bestera ikusten ditu diferentziak: "Klabezina oso instrumentu sensiblea da. Pianista izan den batentzat gusto ematen du klabezina jotzeak. Pianoa hotza da, beti afinatuta egoten da, eta klabezina berriz, zuk afinatu behar duzu, zeureagoa bezala da. Piezaren arabera gainera aldatu egiten da afinatzeko modua".

Italian sortu ondoren, klabezina hainbat herrialdetan garatu zuten: "Baziren eskola ingelesa, alemana, espainiarra, eta baita Euskal Herrian ere, zenbait konpositorek klabezinerako piezak idatzi zituzten XVIII. mendearen bukaera aldera. Arantzazuko artxiboan egon dira gordeta euskal artisten piezak".

### **Klabezina berreskuratzen**

Pianoa agertzean klabezinak indarra galdu zuen, baina mende ho-

nen hasieran instrumentua errekupe-ratzen hasi ziren, Holandan batez ere. "Holandesak Bachen musika klabezina-z jo behar zela esaten hasi ziren, eta ez pianoz". Junkalek berak klabezinaren bidez Bach berriz ere deskubritu egin du. "Pianoan bere obrak modu batera jotzen nituen, eta orain klabezinean beste modu batera jotzen ditut, guztiz diferentea da".

Junkal klabezina nola jo behar den ikasten ari da oraindik. Aurten hirugarren maila bukatuko du, eta oraindik beste bi kurtso falta zaizkio. Donostiako Udal Kontserbatorioan ari da ikasten. Guztira zortzi ikasle daude klabezina ikasten. Horietatik zazpi beste instrumentu batetik iritsi dira klabezinera, baina bada neska gazte bat klabezina lehen instrumentua duena. Orain arte klabezina ikas-teko, aurretik pianoa jakitea ezinbes-teko zen, baina gaur egun mutil edo neska gazte bat txikitik has daiteke klabezinarekin.

Junkal ikaslea da Donsotiako Kontsebatorioan eta Lasartekoan berriz, irakaslea, pianoa irakaslea. Eta bere eguneroko lanean, eta musika munduan orohar, gizartean dagoen konpetibitatea ikusten du. "Poza eman behar zizun musika egiteak besterik gabe, baina irakaslearen pape-retik, akatsik ez egotea lortu behar duzu, eta askotan helburu horiek lortzeko musikak duen alde ludikoa eta imajinazioa ahaztu egiten ditugu".

Konpetibitatearen erruduna neurri batean pianoa da. "Pianoarekin errezitalak hasi ziren, dena buruz jotzea, eta lehia hori... Klabezinaren garaian oster, musika dantza egiteko jotzen zuten, ondo pasatzeko, eta musika ona egiten zuten gainera".

Egoera honen aurrean, klabezinarekin batera eta Junkalen bidez, musika berriro ere imajinazio izatea lor dezakegu.

**Manu Etxezortu**



● **Xabier Lasa**

## PRINTZIPIO SAKROSANTUEN ERORKETAK...

Bizi-habitoak azpikoz gora ari dira jartzen gure gizarte honetan, ez bakarrik formaz, baita sabel sabeletik ere. Euskal printzipioetan aldagaitzak omen ziren giza figurak ere, ari dira bizi-jarreretan iraultzen.

Gure zaharrek pentsatzen zuten, eta dute, euskal kualitateak, hala nola zintzotasuna, langilea, enpreddorea, xumea...kutsagaitzak zirela. Balore supremoak ezin nahastu zirela herri harrotzekin, hots, txurrianoekin. Fabrike-tako ke zein usain zikinen ekarleak baitziren. Euskal nortasun zintzoarekin erantsigaitza zen pandero eta kastañuelaren kultura errepresentatzen zuten, pulamentu gabeko otordu-hotzen ohiturazaleek... Et-et-et gure izakerarekin nahaspilatu!

Halaber, azken jeneraziokoei euskal autentizitatearen tituloa kendu zigutela, bada urte mordo bat. Mendez mendeetatik zetorren euskal izpirituari egin ohi diogu purrustadarik, sekulako sakrilejioa; leporatzen zitzaigun, eta zaigu oraindik, herri arrotzetatik zetozten habito eta ohitura zakar eta alprojeekin geratu garaia seduzituta, eta euskal tradizioei egin traizio, baita euskaldun-fededunaren identifikazio sakratua hautsi ere, ez baitugu elizarik zapaltzen. Eta, elizaren dotrinari muzin eginez, ezin moraltasun zuzenik eraman, gutxiago etikorik.

En fin, euskal balore horiek, alegia ahozko tradizio aberatsari esker jenerazioz jenerazio iragaten zirenak, Buruntzako malkarretatik harrobira omen dihoaz amilka. Baina, eta, garai bateko sukaldeko sutondoaren antzera, afalosteko aldarrean komunikazio hori nahi izan da ere, kondiziorik ematen al da ordea egun? Norekin, eta euskal-kristau-fin-bati-dagokion-legez telediarioetako Ruanda nahiz Bosniako sarraskiekin indiferentzi eta sentibera-gaitzarik handiena erakusten duen helduekin... Txurriano jendillajearen mixeri moral eta desgrazien merkantilismoarekin kaja-tuntunara bene-benetan txoratuta eta engantxatuta dauden helduekin?


Berdin dio, ordu berean beste katean, ari badira jardun dotorean bertsolariak, euskal graziaren eta espontaneitatearen omen zirenen ereduak. Nahiago Lobatonen bibote apaina, Joxerragartziaren bizar xarpaila baino. Lehen, oheratze aurreko zeremonian, errosario errezoen misterioen poderioz, erresueltoak zituzten esistentziatzko barne-kezka guztiak; kristau-sinismenak eskaintzen baitzizkien erantzunak. Gaur, misterio horiek *sin resolver* daukate.

Alajaina, Joanes Artzaina halako batean Urbiako larre berdeetatoko lurpeetatik azaleratu, eta ausartuko balitz begiratu bat ematera, nori eta euskal balore supremoen euste-lana konfidatu zien seme-alabei... Bizitzak sorpresa atsegabeak ematen ditu, ematen dituenenez, Joanes!

“CONSUMENTUM EST”  
JOAN MARI IRIGOIEN.  
ELKAR.




“Europaren funtsa” izenburupean aurkeztu du Itxaro Bordak liburu hau. Europa zentralaren eta Europa meridionalaren arteko borroka deskribatzen du Altzako idazleak. Bi pertsonaia: Gadea, alemaniar jatorrizko burges serora; Diego, tropa nazionalisten buru izatea lortu duen ikazkin espainiarra. Gerla Zibila has-tapenetan eta gorrotoak eta mendeku nahiak gobernatzan duen patu bera.



“SU TA GAR ZUZENEAN. MORE VOLUMEN TOUR 93”

Hona hemen bideoa bat grabatu duen euskal rock talde gutxienetakoa. Hiru disketan bildutako hamabi kanteak osatzen dute bideoa. Hirurogei ta bost minutuko iraupena du lan honek eta, besteak beste, talde eibartarrak bere herrian emaniko kontzertu baten zuzeneko grabazioa aurkezten du.

**ALBIZU**




**KIROLAK**

*Lehen marketako kirol jantzi eta oinetakoak*

NIKE, REEBOK, ADIDAS, AVIA,  
JOHN SMITH, ASTORE, STRATOS...

Kale Nagusia, 2  
BILLABONA



ARGAZKIA-BIDEOA

**Etruchuelo**

Kale Nagusia, 8 - Telf. 591256  
ANDOAIN

ARGAZKIGINTZARAKO  
OSAGARRI GUZTIAK

## Gregorio Monreal, Eusko Ikaskuntzako lehendakariarekin solasean.

**E-** Zuk esana da euskal alderdi politikoek erakunde kultural eta sozialak mesprezatu egiten dituztela.

**M-** Diferentzia handia dago Errepublikaren garaiko eta gaur egungo politikarien artean. Orduko politikoak diferenteak ziren, liburuak idazten zituzten, balio handiko liburuak, gaur egun ere baliagarriak direnak. Agirre lehendakariak, Irujok, Leizaolak, Prietok... politikariek irakurri egiten zuten, aztertu, biblioteka onak zituzten, estimatu egiten zuten gizarte zibila eta konfiantza zuten haren egituraketa eta eraikuntza gaitasunean. Transizioan, milaka pertsona sartu dira Administrazioan. Administrazioa bizimodu bihurtu dute eta iruditzen zait lehiakide bezala ikusten dutela gizarte zibila. Eta ez herriaren garapenean parte hartu behar duen sujeta bezala.

Gurea bezalako erakunde anitzak, inork kontrolatzen ez dituenak, eskuetatik ihes egin eta nora joko duten jakiten ez den zerbait izan gaitzake. Klase politikoaren jarrera honek jende asko konpromezu kolektibotik urruntzea ekarri du. Diote: "Monopolizatu nahi duzue? Bada, monopolizatu ezazue eta atera ezazue zuek herria aurrera. Zuek dituzue diruak eta baliabideak, gu albo batera jarriko gara, indibidualismora joko dugu, edo gehienez korporatibismora, indibidualismo era bat da berau".

**E-** Klase politikoan pobrezia intelektuala ikusten duzula diozu. Intelektualek, ordea, ez al dute gizartearekiko konpromezu eskasa erakusten?

**M-** Ideiekin lan egiteagatik jaten ematen digutenok, egia da ez dugula ematen herri honek behar duena.

Euskal Herriko intelektualek inguru politikotik erabat aparte daude. Baina kontua da euskal intelektualitateak gutxi aportatu duela herri honetako jendea kezkatzen duten gai nagusietan.

Herri honetako materia prima, jende arrunta, materia baliagarria da, kalitatezkoa. Baina eliteak oso kaskarrak dira nire ustez. Elite politikoak, zientifikoak, enpresarialak... oso eskasak ditu herri honek gaur egun. Hori zuzendu daiteke, baina gure belaunaldian jende askok egin dugu porrot proposamen baliagarriak egiteko orduan.

(Euskaldunon Egunkaria, apirilak 10)

*Marte, planeta gorria, berde bilakatuko da.*

AEBko aeronautikako erakunde nazionaleko (NASA) adituek Lurra planetaren kopia bat bihurtzeko asmotan daude Marte. Hori lortzeko aire martiztarra atmosferako gasez beteko dute eta era honetan lurrean daukagun presio eta klima bera ezarriko. AEBn gai honek dagoeneko eragin ditu lehenengo eztabaida etikoak, izan ere, Marte ez da hilik dagoen planeta bat, hain zuzen ere bere basamortu itxura hotz eta lehorrak ematen dio edertasuna askoren ustez, eta horregatik jarri da auzitan gizakiak naturan horrelako aldaketak egiteko eskubiderik ote duen.

(Apirileko Muy Interesante aldizkaria. Erredakzioan itzulia)

*Jose Inazio Ansorena txistu katedraduna eta Mirri pailazoa.*

\* Listo ala tonto paperetan sentitzen haiz erosoago?

Tontoarena egitea gustoko diat, listoarena egiten ikasi egin beharko niake. Gillipoiasarena egiten ikasi beharko niake, listo usteko denak hala baitituk.

(Egunkaria, apirilak 10)

*Jabier  
Inaola*

Harategia-Urdaitegia

**ETXERAINOKO  
BANAKETA  
ZERBITZUA**

Kale Berria, 5

☎ 69 19 32

☎ 69 35 04

**ASTEASU**

**B  
I  
K  
O  
I  
T  
Z**



**FOTO-BIDEO-ARGAZKI**

**JAUNARTZE ETA  
EZKONTZETAN  
OPARI ETA  
BEHERAPEN  
UGARI!!**

KALE NAGUSIA, 19 behea  
☎ 30 07 27  
ANDOAIN

INDUSTRI POLIGONOA  
7.AREA - 4. PABILIOIA

**ADUNA**

**IRULAS**

TELEFONOA 69 02 58

**LAROZTEGIA**

**Ikatza**  
**Taberna**

**GIRORIK JATORRENA !!**

Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN

## JAIOTZAK

- ADUNA:** Igor Mujika Garin. Apirilak 12.  
**ANDOAIN:** Nerea Ibarguren Blázquez. Martxoak 24.  
Helena Elizburu Nargue. Martxoak 23.  
Euken Alkorta Gómez. Apirilak 8.  
Ainhoa Marzol Aranburu. Apirilak 8.  
**ASTEASU:** Tomas Iraola Legarra. Martxoak 17.  
Joana Kortajarena Alejos. Martxoak 19.  
**BILLABONA:** Iñaki Otaegi Tapia. Martxoak 24.  
Julen Eizmendi Zubeldia. Martxoak 28.  
Ainara Mujika Genbeltzu. Apirilak 3.  
**ZIZURKIL:** Iker De la Iglesia Arroyo. Martxoak 15.  
Eneritz Loidi Garmendia. Martxoak 16.  
Nerea Amondarain Hernández. Martxoak 20.  
Adrian Sasiain Mosqucira. Apirilak 9.

## EZKOITZAK


- ANDOAIN:** Jose Ramon Sueskun Escudero eta Miren Garbiñe  
Otxandorena Alkorta. Martxoak 19.  
Martin Jose Azkarain Otamendi eta M. Lourdes  
Azkue Arruabarrena. Martxoak 19.  
Blas Borde Lekuona eta Maria Adoración Cortés  
y Alonso. Apirilak 8.  
**BILLABONA:** José León Sánchez Castro eta M. Pilar Epelde  
Olaondo. Apirilak 8.



## GOIAN BEGO

- ANDOAIN:** Soledad Pascual Sánchez. Apirilak 6.  
**ASTEASU:** Ignazio Puldain Loidi. Apirilak 3.  
**BILLABONA:** Saturnino Jose Alberdi Urbieta. Martxoak 18.  
**ZIZURKIL:** Luis Gutiérrez González. Martxoak 31.  
Pedro Iraola Larrarte. Apirilak 4.

## SUKALDE TXOKOAN



Arantxa Lazkano.  
Ongi-etorri jatetxeko  
sukaldaria.  
Billabona.

## Amoñaren postrea

### Osagaiak:

Kilo bat errege-sagar.  
300 gramo azukre.  
Litro laurden ur.  
Kanela makil bat.

- 1-Sagarrak zuritu eta bihotza kendu. Lapiko batean sartu eta ura eta azukrearekin batera sutan jarri.
- 2- Bigundutakoan "Calvados whisky" txorrotada txiki bat bota eta sutatik kendu.
- 3- Konpota ontzi sakon batera bota.
- 4- Bexamel arina egin eta konpotaaren gainean bota.
- 5- Intxaur txikituekin eta kanela-hautsarekin apaindu.

PAPERDENDA

# ERNAITZA

LIBURUDENDA

Zumca kalea, 2

☎ 59 24 59

ANDOAIN

# IZEIA

LURRINGEGIA - APAINDEGIA

Juan Bta. Erro, 2 - ☎ 59 21 46 - ANDOAIN

# OLAZABAL

## ITURGINTZA

BEROGAILUEN INSTALAZIOA  
UR BEROA  
ITURGINTZA  
E-G IV GASA

J.Larreta etorbidea, 35 - ☎ 37 07 18 - 30 04 66  
ANDOAIN

## Ikasketak

### ANDOAIN:

☞ Klase partikularrak. Maila guztiak. ☎ 36 49 50

☞ Eskolarako laguntza psikologikoa euskaraz eta erdaraz.

☎ 59 97 67

☞ Enpresa ikasketetan diplomatua eta irakasle esperientziadunak OHO, BBB, UBI eta IEE-ko ikasleei klase partikularrak emateko preste dago. ☎ 59 05 48

☞ Ingeleseko azterketek kezkatzen bazaituzte deitu konprometurik gabe telefono honetara: 59 03 23

### ZIZURKIL:

☞ BBBko ikasleei latineko klaseak emateko preste dago Maria.

☎ 69 06 76

## Harremanak

♥ Hementxe gaude oraindik ere zure deia zain.

☎ 30 07 32/ 30 07 33

♥ Nigan daukadan hutsunea zurekin bete nahiko nuke.

☎ 59 02 85

## Salerosketak

### ADUNA:

☞ Nekazal lur saila erosiko nuke. ☎ 47 29 91

### BILLABONA:

☞ Hirigunean pisua salgia. Altzariz hornitua. ☎ 69 07 65

### ZIZURKIL:

☞ Neskarentzako jaunartze jantzi bikaina salgai. ☎ 69 19 54


**Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalan-tzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaiguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinaren gainean izango da.**

**Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.**

## GVRE LAVBIDE, S.L.

ERABILERA PROFESIONALERAKO NOLA PARTIKULARRERAKO AUKERA GUZTIAK

Motoaitzurrak - motozerrak -  
sasikengailuak - segak -  
sulfatiluak - generadoreak -  
ordezkoak - eranskinak



SALMENTA ETA  
KONPONKETAK

Zure baratza eta lorategirako  
makinak

BELARRA BIRZIKLATZEN  
DUTEN MAKINAK!!

Nazional I errepidea, Bazkardo bidegurutzea  
☎ 59 01 78 - ANDOAIN

STIHL  
Kubota  
Husqvarna  
AGRIA

## BENTA Sagardotegia



Espezialitateak, bakailua  
tortillan, saltsan eta frijitua,  
txuleta, kostilla

SORABILLA-ADUNAKO  
ERREPIDEA

☎ 69 30 94



Hemen duzu aurtengo Berrigara lehiaketan saritutako amodiozko gutuna. Ekhiñe Egiguren donostiarra da egilea. Era honetako edota beste-lakoa izan daiteke bidal diezagukezun gutuna. Gustoko baduzu, eta ariketa gisa, eskutitz hau osatzen has zaitezke

Parisen, 1968ko urriak 7

Urratu dizkik arrats gorriak hodeiertzeko zokorik ezkutuenak ere eta bazirudik lokartzen ari dekela, ahultzen, hiltzen... lanbro misterios batean kulunkaturik, ilunaren taupadetan galbideratzeko irrikaz.

Baduk denbora lorategian begizta ohi genizkian enarak ikusten ez dizkiatela. Hostro orbeldu deusez bat zelaira jausi zen goiz hartan bertan aldegin ziaten, zeruan arraia labur borobilduak sortuz, larrazkenaren adats eztiak arnasteko ere astirik hartzeke.

Azkena oparitu hizkidan larrosak zimeldu dituk, Arthur. Galdu diate arestian senti hezakeen leuntasuna eta zuritiesun definigaitz hura desagertu duk jada, mendi bazter lohituen antza hartu ditek petalo hauskorrek.

Eta hemen naukak, Parisko parke bakan batean, apika ahazturik edukiko hituen ilunabar bioleta haiek banan banan gogoratu nahirik. Ikus dezakeat oraindik hire begien diztira xarmant hura. Geroztik ez dizkiat izarrak kontatzen. Haien leinuruak argi faltsu bat besterik ez zirudik eta

noizbait eguna ezagutu ziaten begiok ilunaren esklabu bi dituk orain, ez bide ditek karrikarik aurkitzen gure amodioaren testigu izandako zubi zaharkituetan barna.

Ezin haut ahantzi, Arthur. Gau haiek betidanik amestu izan nizkian maitasun amaigabe bat izan hituan. Hire ezpain gozoen uhin hezeetan dantzatzen erakutsi hidan eta nire bularrak besarkaturik jarraitzen diate oraindik belarrira xuxurlatu hizkidan fereka xamuretara.

...  
Hire zain. Eternuki. Michelle

Gogoan har ezazu irakurle, bidali nahi duzun karta edo idatzia, kasu guztietan, zure izena eta bi deiturez eta Nortasun Agiriaren zenbakiarekin lagundu beharko duzula. Era berean, zure helbidea jakinaraz diezaguzu, arren!

**OGIZURi**

Okindegi eta Gozotegia

ZURI ZURIA...

Kale Nagusia, 26  
☎ 69 32 94 BILLABONA



**VTTVN**

Amalia Rodriguez Garralda

ZURETZAT BERRITU DUGU DENDA  
ZATOZ ZURE OPARIAREN BILA!!

Kale Nagusia, 12 - ☎ 59 18 63 - ANDOAIN

**LEITZARAN FINKAK**

ETXEBIZITZA ETA  
LOKALEN SALEROSKETA  
ETA ALKILERRARI  
BURUZKO INFORMAZIOA

KALE NAGUSIA, 20 Behea - ☎ 591856 - ANDOAIN

**OGI-GOXO**

Okindegia

EDO BELZTUXEAGOA,  
BAINO GOXO  
GOXUA!!

Lizarra kalea, 32  
☎ 69 18 96 ASTEASU

**AURRERA  
TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

**Gema**

**Loradenda**

LORATEGIEN MANTENUA  
KANPO NAHIZ  
BARRUKO LANDAREAK

Kale Nagusia, 5 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA



**Koro Arruabarrena.  
Andoain.**

## ERRU ORRATZAK

Bultzaka eta erdi arrastaka, desberdinak zirela atzematen zienekiko urruntasun berezi hura nola edo hala gordez, gelaska hotz eta ilunean sarrarazi zuten. Hala ere, giltzak burdinezko zerraila ixterakoan egindako zarataren oihartzuna entzun zuen arte ez zen bere egoeraz jabetzen hasi.

Begi gorrituak iluntasun opaku inguratzaila berri-  
ra ohitzen zitzaizkion neurrian, honek hasieran ezkutatu-  
tako formak piskanaka definitzen eta gorpuzten hasi zi-  
ren. Eskubiko plastikozko ontzi berde zikina konketa bar-  
ruan sartuta ikusteak hezurretaraino sartzen nabari ze-  
zakeen hezetan hotzaren kiratsarekin batera goragalea  
eragin zion. Ezkerraldean, kamastra baldar ondoko apa-  
letik emazteak bidali burusia gainetik jartzeko hartu zue-  
nean, eskuturrak bendatuak zeramatzala ikusi zuen harri-  
turik. Gogoratzen ez zuen azken krisialdiaren ondoren  
eman zizkioten lasaigarrien eraginaren menpe aurkitzen  
zenez, pentsatzea eta ideiak berrordenatzen saiatzea lan  
neketsua gertatzen zitzaion, ezinezkoa hara nola iritsi zen  
jakitea, preso egotearen arrazoia ezagutzeko, eskuturretako  
zainak bere buruarekin akabatzeko azken saiakeran moztu  
zituela gogoratzea. Burmuina haize bolada indartsu ba-  
tek abiadura bizian gorantz daraman xaboi burbuila ba-  
ten barruan senti zezakeen, biraka eta arin; baina aldi be-  
rean mugatuta, lotuta, hortik irten ezinik, burbuila apur  
zedin eta ezezagun arrotzean murgiltzeko beldurrez.

Bendak ikutzerakoan mina sentitu bazuen ere, ez  
zitzaion desatsegina iruditu; alderantziz, laket zitzaiola  
esan liteke, zeren orduantxe arte gupidagabeki martiriza-  
tu zuten bere buruarekiko erantzungabeko galdera guzti

haiek bat-batean bere burmuin gaixoko txoko ezkuturen  
batera baztertu baitzituen, asmatu berria zuen jokoan  
buru-belarri iharduteko asmoz. Bere eskuin behatz lodiaz  
ezker eskuturreko bendak indarrez zapaltzerakoan, edo-  
zein gizaki arruntarentzat jasanezina zatekeen errasumin  
mingarri gorriak zitzada eta hotzikara atsegingarriak era-  
giten zizkion berari, motelduta zuen gorputz osoa zuz-  
pertzuz. Hasieran txandaka aritu zen, orain eskubiaz, gero  
ezkeraz, erritmikoki, bat, bi, bat, bi, bat-bat, bi-bi... Bie-  
kin batera aldi berean egiteko modua ere aurkitu zuen  
eta etengabe, behin eta berriro, obsesiboki aritu zen odo-  
lak bendak blaitu eta besoetan behera zihoakiola estasira  
heldu zen arte...

Lur jota eta dardarka, bere gorputzeko zain guz-  
tiak lehertzeko zorian zituela uste zuenean norbait beha  
zuela ohartu zen. Han, gelaskako iluntasun beltzeko zoko  
batean Kikoren begi urdin distiratsuen begirada saltariak  
gorputz osoa astindu zion, izugarrizko zartada bat baili-  
tzen, bere gogoak oroimenetik aldenduak zituen zorigai-  
tzeko gertakizunak berpiztuz une batez, segundu batzue-  
tan besterik izan ez bazen ere.

Presaka eta berotuta zebilen kotxea martxan jarri  
eta begiratu gabe atzera bota zuenean, Mikel txikiaren  
gorputz ahularen gainetik pasatzerakoan kotxeak egin  
zuen bat-bateko mugimendu berezia nabaritu zuenean eta  
jarraian bere zenbait ikasleren garrasiak entzuten hasi  
zenean, erne jarri zuen argi bat piztu zen bere buruan.  
Mikelen gorputz txiki bizigabea lurrean lehertuta zetzan.  
Eta zoritxarreko egun hartan gertatu zitzaion legez, ko-  
nortea galdu aurretik ikusi zuen azken irudia gogorregia  
izan zen berarentzat. Mikelen ezker eskutxo txuri odol-  
duak, Kiko, bere panpin maitagarriarena hiru bider go-  
gorki estutzen ikusi zuenean hain zarrasta latza jasan zuen,  
ezen kraskagailu batek intxaurrak txikitzen dituen errez-  
tasunez, bere kaskezurra apurtu izan balitzaio bezala sen-  
titu zuela iruditu baitzitzaion. Eta nolabait hala izan zen.

Gehiegi zen. Onartezina zen. Apika odol-jarioaren  
eraginez eta bereziki zama pairaezinaren ondorioz ko-  
nortea galdu zuen, berriro ere amnesiaren isolamendu  
errukiarran babestuz...

**Oremendi**  
**Kirolak**

AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN



**ALOTZ**  
**IZOZKINAK**

KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN

-ADUNA-

## Herri eskolako lehengo eta oraingo ikasleak



Aurten eskola berri bat ireki digute frontoi atzean. Bi solairu ditu, handia eta polita da. Hemen eskola zaharrean baino gauza gehiago daude.

Eskola zaharra Udaletxe azpian zegoen, taberna ondoan. Oso txikia zen baina ondo ibiltzen ginen.

Aiton-amonak eta gurasoak ere gu ibili ginen eskolan ikasi zuten eta gauza hauek kontatu dizkigute:

*Gure amona orain dela 55 urte ibili zen Adunako eskolan. Orduan eskola orain taberna dagoen tokian zegoen. Garai hartan 45 ikasle omen ziren, batzuk eskolan hasten omen ziren zazpi urtekin eta utzi hamaika edo hamabikin. Baserrian lana zegoenean ez ziren eskolara joaten, aurrena baserriko lanak eta gero ikasketak. Gure amona senideetan zaharrena da eta bere lagun asko bezala eskolara asko joangabekoa. Garai zailak ziren.*

38



# KARRIKA

## AUTOAK TAILERRAK ETA DENDA

Ubilotz auzoa, 10  
☎ 30 02 14 - 30 00 89

ANDOAIN

FRANCISCO MENDIKUTE  
**HARATEGIA**



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

## KIROLAK EDURNE

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN






*Garai batean, ama eta aita txikiak zirenean, Adunako eskola Udalletxe azpian zegoen. Mutilen gela ezkerrean, orain taberna dagoen tokian, haren aldamenean nesken gela. 30-40 ume zeuden, txikiak eta handiak batera ibiltzen ziren. Gela bakoitzean mahai handi bat zegoen andereño eta maixuarentzat. Mahai eta aulkiak elkarri lotuta zeuden, pupitrea deitzen zitzairen. Berogailu handi bat egoten zen, makina bat egur erretzen zuena. Arbel handi bat ere bazegoen.*

1962-63 ikasturtea

*Beno, eskola zaharra zen eta mutilak maixu batekin eta neskek andereño batekin ibiltzen ziren. Gaizki portatzen baziren belaurerako lurrera begira jartzen zituzten. Eskurtsiorik ez zuten egiten eta andereñoari beldurra zioten.*




**ILLUMBE, S.L.**  
Autoelektrizitatea



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK  
Pablo Gorosabel, 48  
☎ 65 54 76 TOLOSA  
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa  
☎ 59 24 11 ANDOAIN



**MAPFRE**

**ASEGURUAK**

**ERANTZUN ORAIN  
ZURE ETORKIZUNARI**

Xabin Mujika Tolaretxipi


Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99  
Dr. Huizi kalca, 4 - ☎ 59 23 07  
Faxa 30-00-85  
ANDOAIN

**LAGUNAK**  
**KARROZERIA**

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

EGA S.A. ZERBITZU OFIZIALA  
FURGOI ISOTERMIKOAK  
HOZKAILUAK  
TXAPA ETA PINTURA





MLARAMENDI

MANUEL  
LARRAMENDI

Kultur  
Bazkuna

GUREA  
PLAZARATUZ,  
BESTEENAZ  
ABERASTUZ,

GUREA  
INDARTZEKO

||

GAUR, EZ BIHAR!!

Hipoteka Berriak

interes-tasa  
murrizten  
du

eta askoz gehiago

**Zure hipoteka Entitatez aldatzea errentagarriago gerta dakizu.**

Hipoteka aldatzeak eragiten zituen gastuak nabarmen murriztu dira, bakarrik interes-tasa aldatzen duten maileguetan. Honek, Hipoteka Berriaren baldintza onuragarriekin batera, oso errentagarri bihur dezake hipoteka aldaketa.

**Aukeran dituzu 7 modalitate.**

Euskadiko Kutxaren Hipoteka Berriak zure beharretara egokitzen diren 7 modalitate dauzka, interes-mota finkoan zein aldakorrean.

**Igoerez babestu zaitez modalitate honen bitartez.**


Hipoteka Berriaren modalitate batek bide emango du interes-tasen jaitsierez onuratzeko eta, aurreneko 6 urteetan zehar, zure interes-tasak %10,5a gaindituko ez duela garantizatzeko.

**Beste modalitate honen bitartez, gure eskaintzaren interesik baxuenaz onura zaitez. Honakoak dira bere ezaugarriak:**

- 25 urterainoko epea.
- %1,5eko irekiera-komisioa (gutxienik ere 60.000 pta.).
- 25.000 pta.ko ikerketa-komisioa.
- Interes-tasa finkoa lehen urtean: %7,25 nominala. Gainerako urteotan, aldakorra: MIBOR urtebetera + 2 puntu. Esaterako, 10 urterainoko epea duen 8 milioi pezetako mailegu baten UTB: **%10,40**

Zatoz lehenbailehen zure hipotekarekin eta kontuak atera. Denbora aurrera doan heinean, dirua galtzen ari zara.

Informa zaitez 900 555 900.



Hipoteka  
Berria

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA